

ttipi-ttapa



MODA GEHIGARRIA / 26



Maria ARRETXE eta Ainhoa LANZ,
Goieneko kooperatibako langileak

«AUTOKONTSUMORAKO INSTALAZIOAK EGITEKO INTERES HAUNDIA SUMATU DUGU»

Argindarra «luxuzko ondasuna» bihurtzen ari dela salatu dute
Arretxek eta Lanzek eta sektorea aldatu behar dela diote. Bertzetik,
ortzira honetan, Energia Berriztagarrien Komunitatea
aurkeztuko dute Leitzan. / 7

Lehen pastoralala Xaretan

Maddiren trajeria pastoralala urriaren 15ean eta 16an joko dute Zugarramurdin. Xaretako ehun lagun baino gehiago ari dira lanean / 42

SINADURAK



MAITE
BIDARTE
SOTA / 3

AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

MAITANE
MARITORENA
AZKARATE / 4

MIKEL
RODRIGUEZ
LANDA / 4



ZOKKETA / 56



Goizuetan sortu
duten baserritarren
batzordeaz aritu da
Juanjo Elizalde / 10

Goizutrail lasterketa
eta Arantzako Mendi
Itzulia maiatzaren
21ean eta 22an / 19-34

Herri Urrats
maiatzaren 8an
iraganen da
Senperen / 45



Xabier Ertze
Baztango Ernaiko
kidearekin gazte
martxa hizpide / 40

BERA LESAKA

Agenda 2022

MAIATZA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

5 ORTZEGUNA	LIBURU AURKEZPENA HAMAZAZPIGA- RRENEAN AIDANEZ BEHELAINOAK ERREZITALOI MUSIKATU ETA ILUSTRATUA 19:00 Berandetan BERA
6 ORTZIGALEA	ETXEPARE SARIA APRILAREN 25ETIK MAIATZAREN 6A ARTE HAIKURRENTZAKO ALBUM ILUSTRATUAK SORTZEKO ERAKUSKETA ITXIERA EKITALDIA MAIATZAK 6 - 17:30etan "Berria (katalaketa - collage talerra)" Amaia Egido (adib. tartea: 6-10, iraupena: katalaketa 30; collage talerra 60) Eablen 200eur. Izen ematea Liburutegian LESAKA
8 IGANDEA	ANTZERKIA ERESIA. LURRA ARIN BEKIZU, AMA 19:30 Harrondoa Kultur Etxea Antolatzailea Udalbiltza-Geuretik Sortuak eta Lesakako Udala Sarrera 5€ www.lesaka.eus Harrondoa Kultur Etxeko bulegoan (9:00- 15:00) eta egunean bertan sarrera (agortuta ez badaude) LESAKA
9 ASTIGORNA	BERAKO BESTETAKO BILERA TREKIA 19:00 Berandetan BERA
13 ORTZIGALEA	SOLASALDIA "LOS ULTIMOS ROMANTICOS" TXANI RODEGUEZ 17:30 Liburutegia LESAKA
13 ORTZIGALEA	SOLASALDIA KONTRABANDO BIDASOA LEKUKO (ROSA ARBURUA) 19:00 Berandetan Antolatzailea Mugeri elkarte BERA
14 LARUNBATA	MERKATUA BERTAKO EKIZIOEN MERKATUA 10:30-13:30 Berandetan BERA
14 LARUNBATA	TOPAKETA GILTZARRI ABESBATZA ABESBATZEN TOPAKETA 20:00 Harrondoa Kultur Etxea - Komentua Antolatzailea Giltzari Abesbatza LESAKA
15 IGANDEA	VIL MARTXA ZIKLOTURISTA SALVADOR YANCI Antolatzailea Beti-Garbi LESAKA
15 IGANDEA	SOLASALDI MUSIKATUA HAU EZ DA EUSKAL MUSIKA 18:00 Katala ostetean BERA

ETXETIK PLAZARA

ADI ETXETIK PLAZARAko irakurlea

Duela bi aste politzaratze-prozesuan izandako mabura baten ondorioz ezin izan genuen, aurreikusita zegoen bezala, ETXETIK PLAZARA banatu TTPII-TTAPArekin batera.

Hortaz, 177. alea zuen eskuelara pentsatu baino bi aste beranduago iritsi denez, **SARIRAKO ARIKETA** bete eta bidaltzeko epea aldatu egin da.

Adi, erantzunak maiatzaren 20a baino lehen bidali behar dituzu.



NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Munitibarretik Buchara, 85 urte

1937ko apirilaren 26ko goizean, Gernika txikitu aitzinetik, Condor legioak Munitibarko herriari eraso egin zion. Hiru txandetan egin zen eraso eta lehergailuak jaurti ondotik, ehiza-hegazkinek mugitzen zen oro tirokatu zuten.

Aire erasoak bete-betean harrapatu zuen George Steer kazetaria ere, *The Times* egunkarirako lanean ari zen korrespondentsal britainarra. Markina-Xemein bidean gelditu behar izan zuen autoa, eta bonbek eragindako zulo batean babestu zuen bere burua; 25 metro zabal eta zazpi-zortzi metroko sakonera zuten zulo handienek. 20 lagun inguru hil ziren aire erasoan ondorioz, baina munitibartarrek ezin izan zituzten senideak kanposantuan hobiratu. Karrikan gelditu ziren gorpuak, eta gerora bonba-zuloak erabili zituzten bizitza galdu zuten herritarrak hobiratzeko. Ez dago garaiko irudirik, baina niri Bucha etortzen zait gogora.

**«EZ DAGO GARAIKO
IRUDIRIK BAINA
BUCHA DATORKIT
GOGORA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Itzulera

Halabeharrez bi urtez huts egin ondotik Senpereko aintzirara itzuliko gara igandean; ikaskideen irria estali gabea ikusi dugu berriz ere ikastetxean edo lankideen mutur beltza lantegian; pilotalekuan elkartu gara, ostatueta, elizan... Itzuli gara, edo ari gara pixkanaka itzultzen, baina (arren, mesedez eta otoi) ez gaitezen azken bi urtekoetara bueltatu.

NABARMENTZEKOAK



**MIKEL
ZELESTINO**
IRAKASLEA

Azken urteetan Igantziko eskolako irakasle izan den Mikel Zelestinok erretiroa hartu zuen apirilaren 29an. Agur hunkigarria egitekoa zioten eskolan egindako lana eskertzeko.



**XABAT
ILLARREGI**
BERTSOLARIA

Zaldibian jokaturako Osinberde bertso sariketa irabazita, apirilaren 23an Gabiriko Osinalde sariketako finalean kantatu zuen Xabat Illarregi bertsolari leitzarrek.

GIBELERA BEGIRA



2012-05-03 · TTIPI-TTAPA · 565 zk.

Zilarrezko bi domina Irati Otxotekok

Irati Otxoteko Arlegi txirrindulari lesakarrak zilarrezko bi domina lortu zituen txirrindularitzako Espainiako pistako txapelketan duela hamar urte. Tafallako Reyno de Navarra taldean ari zen Otxoteko eta abiadura eta 500 metroko probetan eskuratu zituen dominak. Orduko hartan kontatu zuenez, irailean jokatzekoak ziren Espainiako txapelketan parte hartzea zuen helburua. «Iaz atarian egon nintzen. Aurkari zuzena ni baino hobeki zegoen. Ea aurten zortea dudana, nahiz eta seguruenik berdina gertatu», azaldu zuen. Helburu nagusia pistako lasterketak izanagatik, errepideko lasterketan ere parte hartzen zuela kontatu zuen, tartean uztailan jokatzeko zen Espainiako Txapelketan.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbitzuak, Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	42
Leitza	33
Hego Euskal Herria	50
Ipar Euskal Herria, Europa	98
Amerika eta Australia	147



KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Celayeta, Echenique, Videgaray... Noiz artio?

«...se advierte que en un plazo de 48 horas han de suprimirse k, tx, b etc con que han violado los nacionalistas el glorioso idioma español, bajo la multa de 500 pesetas, por primera sanción» (1936).

«se consideraran tambien nulas y sin valor legal las inscripciones que se hallen practicadas en idioma distinto al castellano» (1938).

Bi urte desberdin, bi agindu, helburu bakarra: euskara baztertu, zokoratu eta desagerrarazteko bidean bertze urrats bat. Euskal abizenak desitxuratu, euskal itxura gal dezaten, noren menpe gauden argi geldi dadin. Euskal izenak paratzea debekatu zuten, baina abizenak ez dira debekatzen ahal, «emana» heldu baitzaigu. Hortaz, euskal kutsua kentzeko, euskal hizkiak debekatzea izan zen hartu zuren bidea: *suprimiendo k, tx, b*. Etxeberri dena Echeverri- Etcheverry bihurtuz, Haranburu dena, Haramburu-Harambourou.

Estatu batek (gure kasuan bik) agindua ematen badu beraien hizkuntzako grafia erabili behar dela hizkuntza horretakoak ez diren abizenak izendatzeko, uste duguna baino inportanteagoa da euskal abizenak euskal grafiaz paratzearena.

«ORAINO ABIZENAK GUREA EZ DEN GRAFIAREKIN ESKRIBITZEN...»

oraino bizirik baleude bezala segitzen dugu euskal abizenak gurea ez den grafiarekin eskribitzen: Echave, Eliceche, Urchulategui...

Ez dakit euskaraz alfabetutako irakurleren bat ote den begiko minik egin gabe hori leitzen duenik, erantzuna baiezkoa bada, zinez erraten dizuet, ez dela nire begien arazoa, ez dela nire «kapritxo» euskal hitzak euskal grafiaz eskribitu behar direla aldarrikatu behar izatea. Ez bederen, D ereduan lanean ari bagara. Edozein dela ere ematen dugun ikasgaia, hizkuntza dugu gure lanabesa, hortaz, guztiok gara euskara irakasle. Pentsatzen baitut euskaldunak izanagatik eta D ereduan egonagatik, inork ez duela *Xexpir* eta *Bazkez* modu horretara eskribituko. *Pensatcen dut icasgay desverdinatenco eduquiac arvelean escrititceracoan gure izquiak erabilyco ditugula icasgaya azalceco*.

Hizkuntza estandar bat sortzeko lehenbiziko pausoa alfabetoa zehaztea izaten da, gure kasuan, euskara batua sortzeko bilkuretan, 1964an Baionako biltzarrean euskarak izanen zituen hizkiak zehaztu ziren, eta C, QU, V, W eta Y erdal izenak idazteko erabiliko direla dio arauak.

Celayetatik Zelaietarat dagoen diferentzia ez da hizkietan bakarrik neurtzen.

Zorionez gaur egun ez dugu inolako arazorik euskal abizenak euskal grafiarekin paratzeko. 1936. urteko aginduaren beharrik ez du 2022ko euskaldunak. 80 urte baino gehiago pasatu dira frankismoak bi agindu horiek eman zituenetik, baina



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Distantzia eta interesak

Anatoli preso sartu zutenean, Errusian diktadura bukatu berria zen, eta erreforma demokratikoa egiten ari ziren. Anatoli haurra zela sortu zuten Ukraina Askea taldea, Errusiako diktaduraren kontra eta independentziaren alde borrokatzeko. Anatoli jaio aitzinetik, Errusiako diktadurak Ukraina inbaditu zuen gerra odoltsu batean. Alderdi nazionalistak debekatu zituen, eta hizkuntza eta kultura ere legez kanpokotzat jo zituen. Milaka ukrainar nazionalista hil zituen gerran eta ondoko errepresio urteetan. Europa osoak eta Estatu Batuek ez zuten Errusiaren inbasioa onartu, eta diktadura ia bakartuta gelditu zen nazioartean.

Gerra galdu zutenen hurrengo belaunaldiak, ordea, Ukraina Askea sortu zuen, hizkuntza, kultura eta identitatea errepre-siopean betiko galtzen ari zirela ikusita. Armatan matxinatu ziren diktaduraren kontra. Urteak pasatu ahala, diktadurak ezin izan zuen Ukraina Askearen erresistentzia zanpatu, eta Errusian bertan indartu egin ziren erreforma demokratikoaren aldeko mugimenduak. Azkenean, diktadurako elementuek eta oposizioek erreforma adostu zuten. Armadak, ordea, muga batzuk paratu zizkion aldaketa politikoari; nagusia, autodeterminazio eskubiderik ez onartzea. Gehien jota, autonomiak onartzeko prest zegoen. Ukrainako alderdi nazionalista historikoak, gerran erresistentzia zuzendu zuenak, ontzat eman zuen autonomia;

«INTERESEN ARABE-RA ERABAKITZEN DUTE INDARKERIA NOIZ DEN LEGITIMO»

Ukraina Askeak, ordea, ez, eta independentziaren alde segitu zuen armekin. Europak Errusia demokratikoari integrazioaren ateak ireki zizkion, nahiz eta Ukrainan hilketa paramilitarrak eta tortura sistematiakoak egiten zituen oraindik. Gerra garaitik aunitz aldatu zen nazioarteko testuingurua, eta orain Errusia erreformatua intereseko aliatua izan zitekeen Estatu Batuentzat eta Europarentzat Txinaren kontra. Anatolik kartzelan pasatu zituen urteetan Ukraina Askea ahuldu egin zen, gizartearen zati handiena nekatu egin zen indarkeriarekin, eta desagitea erabaki zuen. Alderdi politiko independentista, ordea, sendoa da, baina bertze alderdiek, bai agintean den alderdi nazionalista historikoak, baita errusiazaleek ere, Ukraina Askearen historia osoa gaitzetsi dezala exijitzen diote. Legitimitatea falta duela erraten dute, behinola «terrorismoa» babestu zuelako. Legez ere mugatua dute eztabaidatzeko aukera, epaile batek iritzi bat Ukraina Askearen justifikaziotzat joz gero, kartzela zigorra ezar dezake.

Orain, gerra piztu da Europako bertze puntan. Espainiak Portugal inbaditu du, eta Ukrainako alderdi nazionalista historikoa eta errusiazaleak Portugal armak bidaltzearen alde daude, Espainiako soldadu inbaditzaileak hil ditzan. Anatolik uste du Ukrainako eta Errusiako alderdi horiek indarkeria politikoarekin duten jarrera ez dela ez etika, ezta moral kontua ere. Distantzia historikoaren eta geografikoaren, eta uneen uneko interesaren arabera erabakitzen dutela indarkeria noiz den legitimoa eta noiz ez. Gaurko heroiak biharko terroristak izan daitezkeela, edo gaurko terroristak biharko heroiak, agenda politikoen komenientziaren arabera.

11 GALDERA LABUR

NOELIA ALMANDOZ LUKANBIO ARANTZAKO GAZTEA

«Ikasten ari naizen gradua ikaragarri gustatu zait»

Arantzako neska gaztea da Noelia Almandoz. Ikasketak Donostian egiten ditu eta aurten Italiara joatea erabaki du.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Pertsona alaia, pixka bat eroa eta lagunkoia naizela erranen nuke.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zakurrekin mendira joatea, irakurtzea eta konpainia eta musika onarekin zerbeza bat gustura hartzea.

Zer ikasten ari zara?

Instalazio eta altzari hornikuntza ikasten ari naiz Donostian.

Zergatik erabaki zenuen Instalazio eta altzari hornikuntza ikastea?

Atentzioa eman zidan eta zerbait berria probatu nahi nuen.

Zer ikasten duzue zehazki graduan?

Gradua nahiko praktikoa da, lehenbiziko urtean zurgintza arloan gehiago murgildu ginen, gure altzariak eginez. Bigarren urtean, berriz, ordenagailuko programetan gehiago sakondu dugu, diseinu arlorako gehiago hurbilduz.

Erasmusen Italiara joatea erabaki duzu aurten. Zergatik?

Bai, zehazki Boloniara. Egia erran, ez zen nire lehenbiziko aukeretako bat izan, baina atentzioa eman zidan hizkuntzak, eta hagitik gustura nago.



Zer izan zen hara ailegatzean gehien harritu zintuena?

Orokorrean euren antolaketa falta erranen nuke, baita hagitik gaizki gidatzen dutela ere.

Desberdintasun kultural handiak daude?

Ez, Euskal Herriarekin parekotasun handia du Italiak.

Eta hezkuntzari eta ikasketei dagokienez?

Nik ikusi dudanaren arabera, desberdintasunak

nabaritu ditut. Bertan askatasun gehiago dutela erranen nuke, ezin dut errazagoa dela erran baina bueno, hortan utziko dut...

Zeintzuk dira zure asmoak epe motzera?

Ikasten segitzeko asmoa dut, sartu naizen arlo hau ikaragarri gustatu zait eta ahalik eta gauza gehien ikasten segitu nahi dut.

Eta epe luzera?

Ikasi dudan honetan lan egitea espero dut.



Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

bikoitz, hirukoitz, bi halako, halako bi, halako hiru...

Bikoitz (sinonimoa, *doble*) eta *hirukoitz* adjektiboak dira (salbu lehenaren 'biki' adieraren eta bigarrenaren 'hirusta' adieraren kasuan):

- Lerro bikoitza.
- Lan-istripuak izateko aukera bikoitza da.
- Batasun hirukoitza.
- Jauzi hirukoitza.

Hitzok izen moduan ageri diren adibideak bakanak dira orain arteko tradizioan:

- Lau biren bikoitza da.
- Biren hirukoitza sei da.

Ez da aukera egokiena erabilera hori honelako esaldietara hedatzea, non zerbaiten multiploa adierazten den —zerbait zenbat aldiz—:

- ***Iazko(aren) bikoitza gastatu dugu aurten** > *Iaz(koa) halako bi gastatu dugu aurten.*
- ***Zure hirukoitza irabazten du** > *Zuk halako hiru irabazten du.*

Konparazio-erreferentzia bertan aipatzen ez denean, halako bi eta halako hiru hurrenkeraz aldatzen dira: bi halako eta hiru halako.

- Bi halako gastatu dugu aurten.
- Hiru halako irabazten du.

Osatu bikoteak

Antzarka

Dute

Satagin

Padera

Zapatu

Ulitxa

Basasagua

Arnasestuka

Zanpatu

Eltxo

Zartagin

Tea

Nola erran



Horretaz ≠ hortaz

Ez dute balio bera. *Horretaz* erakuslea da eta *hortaz* ondoriozko lokailuaren balioa duena da; *hori dela eta*, *beraz*, *horrenbestez* eta *gisakoen* moduko loturak egiten du.

- Lehen esan duzun gauza horretaz solas egin behar dugu.
- Hasiera polita duk; hortaz, has gaitezen ahalik eta gehienetan.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



57 langile ditu gaur egun Goiener kooperatibak, eta horietako bi dira Ainhoa Lanz –ezkerrean– eta Maria Arretxe –eskuinean–.

«Argindarraren merkatuaren eredua errotik aldatu behar da»

MARIA ARRETXE AGIRRE ETA AINHOA LANZ ORTEGO GOIENER KOOPERATIBAKO LANGILEAK

Argindarraren merkatua ekoizle haundi gutti batzuen esku dagoela salatu dute Arretxek eta Lanzek, eta gaur egungo ereduaren egitura aldatu behar dela azaldu dute

G. PIKABEA LEITZA / BERA

Argindarraren sektorearen egitura «errotik» aldatzearen beharraz eta garrantziaz mintzo dira Maria Arretxe Agirre leitzarra eta Ainhoa Lanz Ortego bera-tarra, berteak bertze, egungoak «espekulaziorako atea zabalik» uzten duelako eta «merkatua ekoizle haundi gutti batzuen eskuetan dagoelako». Badakite zertaz ari diren, ezaguna dutelako merkatua. Goiener kooperatibako langileak dira

biak, Arretxe entitate publikoak eta enpresak artatzen dituen lantaldeko kidea, koordinazio lanetan aritzen dena; eta Lanz, ikasketaz ingeniaria eta energia berriztagarrietan aditua, kooperatibako sorkuntza ataleko kidea, proiektu berriztagarriak garatzeko lanean ari dena. Argindarraren merkatuaren funtzionamenduaz, azken hilabeteetako prezioen gorakadaz eta etorkizuneko erronkez aritu dira TTIPI-TTAPArekin.

Azken boladan maiz aipatu da argindarraren prezioa. Ukrainako gerrak garestitu duela diote, baina zer diozue zuek?

Honen giblean argindarraren egungo merkatuaren eredua desegokia dela ikusten dugu. Eredu marjinala deitzen zaio, Europak ezarritako baldintza batzuen arabera mugatuta dago eta interes politikoak eta ekonomikoak sortzen dituen eredua da. Horren ondorio dira gaur egun ditugu arazo aunitz.

Prezioak historikoak dira...

Bai, bai. Joan den hilabetean sabai guztiak gainditu ziren, eta megawatt-orduaren prezioa 705 eurora ailegatu zen. Hori ez zen inoiz ikusi, eta egiatan historikoa izaten ari da.

Nola ikusten duzue argindarraren merkatua?

Energia edo elektrizitatea oinarritzko ondasun bat da, baina gaur egun luxuzkoa den eta guztion eskura ez dagoen ondasun bat bilakatzen ari da. Merkatu honek momentu honetan espekulaziorako bidea zabaltzen du, eta ekoizle haundiek beraien aberastasunerako erabiltzen dute. Gutti batzuk ttiki aunitzen kontura aberasten ari dira.

Enkante batean finkatzen da argindarraren prezioa. Nola funtzionatzen du?

Jakin behar dugu argindarra-
rentzat orduro, hau da, egunean 24 prezio ezartzen direla. Enkante bat egiten da egunero hurrengo eguneko prezioak finkatzeko. Enkante horretan energia sortzeko teknologia merkeenak sartzen dira lehenbiziko lehian eta garestitzen doaz. Azkenean ordu horretarako behar den energia asetzen duen azken teknologiaz ezartzen du prezioa. Energia berriztagarriak eta nuklearrak dituzten azpiegiturak etetea hagit zaila da, nuklearrak ezin dira gelditu eta parke eoliko bat gelditzea ere ez da erraza. Euren salmenta bermatzeko hagit prezio baxuan joaten dira enkantera, batzuk hutsean ere bai, baina zergatik? Badakitelako ordu horretan teknologia garesti bat sartuko dela enkantera, eta hala, ordu horretan sortu duten teknologia guztiek, kosta zaiena alde batera utzita, berdin kobratuko dutela. Demagun baso bat betetzera zoazela. Basoan ura, sagardoa edo muztioa sartzen ahal dugu, baina azkena sartzen dena xanpaina baldin bada, guztiek xanpainaren prezioan kobratuko dute.

Noren eskuetan dago merkatua?
Ekoizle haundi gutti batzuen esku dago, oligopolioko lauz-



Maria Arretxe leitzarria 2013an bazkidetu zen Goienarren. Gerora boluntario aritu zen eta 2016tik bazkide langilea da.

pabortzen presa elektrika horien esku, urte bukaeran milioika etekin izan dituztela jakinarazten diguten horien guztien esku. Gutti goiti-beheiti merkatuan ekoizten denaren % 80 ekoizle haundienek kontrolatzen dute. Horrek azpiegiturak ongi datorkien moduan erabiltzeko aukera ematen die, martxan paratu edo gelditu gehien komeni zaien momentuan, ahalik eta etekinik haundiena lortzeko egokitzen dute. Argi eta garbi ikus daiteke nola espekulatzen den, eta nola erabiltzen dituzten azpiegiturak irabazirik haundienak ateratzeko. Eta ez dugu atzertu behar irabazi haundiak dituzten sortzaile haundi horiek direla merkaturatzaileak ere, eta beraz, euren dira kontrolatzeko ahalmena eta boterea dutenak.

Gasaren prezioak argindarraren prezioa baldintzatzen du. Azalduko zenukete?

Momentu honetan gasarekin ekoizten duten teknologien edo prozesuen kasuan, justifi-

katuta egon daiteke prezio garestia izatea, gasaren prezioa ere maximo historikoak izaten ari delako. Baina aitzineko hilabeteetan gasa ez da egoera horretan izan, ez dira zentral termikoak izan prezio hori ezarri dutenak. Nahiz eta energia merkeago sortu, badakite azkenean prezioak gasa erabiltzen duen teknologiak edota bere ondotik enkantean sartzen direnek ezarriko dutela. Otsailan, adibidez, prezioa ezarri zuten teknologiak nagusiki hidraulikoa eta eolikoa izan ziren, gasa erabiltzen duten azpiegiturak edo teknologiak % 16 baino ez ziren izan, eta guk merkatuan prezio horretan edo garestiago ordaindu dugu energia guztia, ez delako ba-

«ARGINDARRA LUXUZKO ONDASUN BAT BILAKATZEN ARI DA»

koitzari ekoiztea kostatzen zaionaren arabera ordaintzen. Hori da merkatu marjinalak duen berezitasuna.

Joan den urteko ekainean Espainiako Gobernuak argindarraren gehienezko prezioaren sabaia igo zuen...

Inongo abisurik eta azalpenik eman gabe, Espainiako Gobernuak merkatua erregulatzeke ezarritako sabaia 180 eurotik 3.000 eurora igo zuen. Horrek bertze hausnarketa bat egitera garamatza. Batez ere zer ote zetozen bat-batean horrelako mugimendua egiteko? Kontua da igoera horrek gaur egun gertatzen ari diren prezioaren gorakada esponentzial eta ulertezin horiek legezkoak izatea bai-

«MERKATUA EKOIZLE HAUNDI GUTTI BATZUEN ESKU DAGO»

mentzen duela. Eta aldi berean, ezeگونkortasuna eta ezjakintasuna sortzen du; ez dagoelako toperik, ez energia ekoizten edo merkaturatzen aritzen garenontzat, ezta herritarrentzat eta enpresentzat ere. Argindarraren prezioa izugarri altxatzen ari da, batzuetan jasanezina izateraino.

Ondoko hilabeteetan zein izanen da joera?

Espainiako Gobernuak irailean ezarri zituen salbuespen neurriak luzatzea erabaki du. Hala, 10 kilowattetik beheitiko kontratuetan BEZak % 10 izaten segituko du [tasa ofiziala % 21 da], eta argindarraren gaineko zerga bereziak % 0,5 [lehen % 5,12 zen]. Bonu soziala hartzeko aukerak ere haunditu ditu, baldintzak malgutuz, eta erregulatutako kostuan % 55eko beherapena ezarri du. Baina ez dakigu neurri horiek noiz arte iraunen duten. Bada bertze neurri bat ere, beharbada prezioaren jaitsiera eragin dezakeena. Iberiar penintsulak dituen berezitasunengatik Europak neurri bereziak hartu ahal izatea onartu dio, eta gobernuak gasaren desanexioa eskatu berri du. Horrela, *zerutik erorritako irabaziak* deitzen diren horietan eskua sartzeko aukera izanen luke.

Gobernuak zenbaterainoko indarra du eskua sartzeko?

Prezioak ezartzeko prozedurak Europak zehaztuak dira, baina aipatu ditugun neurriak koiunturalak eta puntualak dira, partxeak izateko haratago ez dute bertze misiorik. Sektorearen egitura aldatu behar da, eta hor gobernuak ez du manio-brak egiteko aukera haundirik. **Eta neurriak eraginkorrak direla uste duzue?**

Dagoeneko badute isla prezioan, zertxobait jaitsi delako. Baina merkatuko prezioak jaisten edo egonkortzen ez diren bitartean, isla titkia izanen dute kontsumitzaileen artean. Europa mailan gaur egun dagoen eredu marjinala da errotik aldatu behar dena. Bertzela, azken hilabeteotako egoera behin eta berriz

errepika daiteke, ez dakigu zein maiztasunarekin eta noiz arte. Igoera Ukrainako gatazkagatik etorri dela erraten dute baina lehenagotik ikusten ari ginen heldu zela, eta gatazkarekin lehertu egin da.

Argindarraren merkatuaren igoerak nola eragin dio Goienerri edo gisako merkaturatzaile ttikiei?

Gure egunerokotasuna dezentte zailtzen du. Merkaturatzaileok, astero, kudeatzen dugun energia ordaintzera behartuta gaude, baina energia hori ordaintzeaz gain, hurrengo astean eginen dugun erosketaren bermeak ere jarri behar ditugu, eta berme horiek ere prezioaren arabera igo egiten dira. Azken aldiko prezioaren igoera masibo horrek merkaturatzaileen artean likidezia arazoa sortzen du. Hala ere, Goienerrek bazkideei eskaintzen dizkien prezioak finkatzeko aitzinetik erosketa haundia egiten du bertzte modalitate baten bidez, eta horrela kooperatibaren egoera finantzarioa egonkor bermatu dezakegu.

Berriki batzar orokorra egin eta neurriak hartzea erabaki duzue...

Momentuko egoera kritikoa-gatik ezohiko batzarra antolatu genuen. Aurre egiteko gai izanen ginela ikusten genuen, baina larritasun egoera batean neurri batzuk hartzeko aukera izateko baimena eskatu genien bazkideei eta bazkideek hagitz ongi erantzun zuten. Euren esker segitzen dugu hemen. Batetik, kapital soziala haunditzeko eskatu genien, bazkideei ekarpen bat eskatzeko atea irekita uztea, eta bertzetik, etorkizuneko fakturak aitzindu ahal izatea, nolabait ere likidezia arazoren bat sortzen baldin bada fakturak aitzindu eta epe errelera ailegatzean likidatzeko aukerarekin. Bertze finantziario lerro batzuk ere paratu ditugu martxan eta horretarako baimena eskatu genien bazkideei. Besteak beste COOP57n bakidetu gara eta indarrak batzeko merkaturatzaile txikiak batzen dituen ACENEL elkarteetara ere atxi-



Ainhoa Lanz beratarak aspalditik ezaguna du Goiener, eta lanean 2021eko apirilean hasi zen. Sorkuntza atalean ari da.

kigara. Hortaz gain, Goienerren, oraindik, argindarraren merkatuarekin menpekotasun haundia dugu eta hori murriztea da helburua. Horretarako hainbat bide paratu nahi ditugu martxan. Alde batetik, argi eta garbi, sorkuntza propioa indartu nahi dugu, gaur egun kudeatzen dugun energiaren ehuneko tiki bat bertzerik ez dugulako ekoizten. Bertzetik, alde bitako kontratuak bilatu nahi ditugu, ahal dugun energia gehiena enkante horretatik kanpo kudeatu ahal izateko. Bertzela, etorkizuna ezegonkorra eta ezjakina izanen da. Badakigu ez dela erronka erraza izanen eta bidea luzea izanen dela, baina kooperatiban horri lehentasuna eman nahi diogu.

**«KONPAINIA
TTIKIETARAKO
JOERA HANDITZEN
ARI DA»**

Herritarren gero eta kezka haundiagoa sumatzen da. Konpainia ttikiagoen aldeko joera sumatu duzue?

Bai, egoera honen ondorioz, konpainia ttikietarako joera gero eta haundiagoa da. Herritarrek hurbiltasuna, gardentasuna eta konfiantza transmititzen duten entitateak nahi dituzte. Horrekin batera, autokontsumorako instalazioak egiteko interes haundia sumatu dugu eta hagitz proiektu politak sor daitezke. Dirulaguntzak ere horretara bideratzen gaituzte, eta energia berriztagarrien komunitateak zer diren, horren inguruan lanean nola hasi behar den... Horren inguruko interesa gero eta gehiago nabaritzen da.

**«ERRONKA
NAGUSIETAKO BAT
HERRITARREN
AHALDUNTZEA DA»**

Zein dira erronka nagusiak?

Egoera hau aldatzen hasteko erronka nagusietako bat, lehenik eta behin, herritarren ahalduntzea da. Deszentralizazioa, kontsumo arduratsua eta horrekin lotuta dagoen desazkundea, autokontsumorako instalazioak eta burujabetza energetikoa. Horixe da bidea.

Zerbait gaineratuko zenukete?

Erronka horiek guztiak larrialdi klimatikoari aurre egiteko ezinbertzeko neurriak dira, eta erronkaguztiona da. Herritarrok arduratsu jokatu behar dugu, aldaketaren parte izan, norbere etxetik hasi eta herriguneara eta auzoetan inplikatur. Kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu, baina ez energiaren alorrean bakarrik. Aunitzetan atzentzen zaigu egiten edo erosten dugun edozein gauzak baduela aztarna ekologikoa, baina ezin dugu hori bertzte batzuen esku utzi. Guk ere badugu zer egin, eta zer erran, eta ekintza ttiki guztiek badute euren eragina.

«Ahal duguna egiten dugu baina bakarrik ezin dugu»

JUANJO ELIZALDE USARRAGA GOIZUETAKO BASERRITARREN BATZORDEKO KOORDINATZAILEA

Goizuetako baserritarren momentuko egoeraz eta etorkizuneko erronkez mintzatu da Elizalde. «Goizuetan baserria garapen haundirako» bidean jartzeko asmoz, batzorde bat sortu dute

G. PIKABEA GOIZUETA

«Goizuetan baserritik hutsetik bizirautea oso zaila» dela dio Juanjo Elizalde Usarraga (Goizuela, 1974) Goizuetako Baserritarren Batzordeko koordinatzaileak, «gazteak nekez» lotzen direla baserrira, eta «orokorrean gainbehera nabarmena» dela. Baina badute egoera iraultzeko gogoa, eta asmo horrekin baserritarren batzordea sortu dute. «Baserriarekin lotura dugun herritarren eta baserritarren talde zabala» elkartu dira, eta «Goizuetan baserria garapen haundi batera eramane duen mugimendua jaio» delakoan dago. «Antzeko egoeran dauden herrientzako eredu» izan daitekeela uste du.

Nolakoa izan da batzordea sortzeko prozesua?

Gure egoera txarra dela eta, azken urteotan baserritarrak dezente mugitzen ari gara. Udalaren azken jokabide desegokiak ikusita bilerarako deia egin genuen. Egoeraren berri eman ondoren, batzordearen beharra ikusi genuen eta pausoak ematen hasi ginen. Auzo batzuetako jendea boluntario aurkeztu zaigu eta besteak hitz egin ondoren ordezkari tza lana egiteko prest agertu dira. Lau auzotan banatu ditugu baserriak eta bakoitzak bere ordezkariak ditu, eta azkenik, koordinatzailea. Goizuetan baserria garapen haundi batera eramane duen mugimendua jaio da, antzeko egoeran dauden herrientzako eredu izan daitekeena.

Zergatik sortu duzue batzordea?

Zergatia oso argia da: baserritarrak mugitzen ez bagara aukera ikaragarriak galtzen ditugu, kudeaketa ezegokia delako. Helburu nagusia baserri eta mendi inguruen egoera tamalgariari buelta ematea da. Horrekin batera, baserriko hainbat egoerak herritarrei eragiten dizkieten arazoei irtenbidea emateko tresnaizatea nahi dugu. **Kaleratu zenuten azken oharraren arabera, 80 ustiategi daude Goizuetan. Zein da horien egoera?**

Ustiategi gehienek ardiak dituzte, beste batzuek ardiak eta behiak edo betizuak, eta badi-tzugu behor batzuk ere bai. Baserri ttikiak dira nagusi eta gehienek bestelari bide bat dute. Gazteak baserrira nekez lotzen dira, eta orokorrean gainbehera nabarmena sumatzen dugu. **Zenbatek dute baserria ogibide?** Bost bat gara ogibide nagusia abeltzaintza daukagunak. Azken urteotan bost gazte hasi dira, baina hiruk ustiatagia itxi dute bost urteko konpromisoaren ondoren. Goizuetan baserritik hutsetik bizirautea oso zaila da. **Zein da arazorik haundiena?**

Baserrian lan egiteko prest dagoen jende asko dago, baina errealtatean beste lanetan bai-

no baldintza okerragoak dauz-kagu: lan asko, jai gutxi, lotura haundia, burokrazia izugarria, lanordu bakoitzeko etekin gutxi... Horregatik gehienak beste lanetara joaten dira. Horri gehitu behar zaio baserri eta mendi inguruen egoera atzerakoaia, bideen egoera txarra, mendi zikinak, azientak amiltzen diren lekuak, aska falta...

Bide eta mendien egoera txarra aipatu duzu. Azalduko zenuke?

Baserrietara doazen bide asko zuloz josita daude, bide bazterretan hesiak falta dira, bide estuetan kunetak egokitu gabe daude... Mendi alde ere tamalgari dago. Identifikatu gabeko behi eta zezen asko daude eta herrira inguratzen hasiak dira. Iturri asko ez daude ur garbia edateko prestatuak, aska gehienak oso egoera txarrean daude, mendiak oso zikinak otez josiak, azientak amiltzen diren lekuak itxi gabe... Gure kabuz ahal duguna egiten ari gara, baina bakarrik ezin dugu. Badi-rudi udalarekin egin dugun lanketa dela eta, hobekuntzak egiteko asmoa duela, eta pausoak ematen hasi da. Ikusi beharko dugu noraino ailegatzen den.

150 behi mestizo basati kontrolik gabe dabilzala esan izan duzue...

«BASERRIAREN GAINBEHERA NABARMENA SUMATZEN DA»

«BASERRIEN ETA MENDIEN EGOERA TXARRARI BUELTA EMAN NAHI DIOGU»

Baserritarren artean asko hitz egiten dugu horretaz, ulertezina baita arrisku sanitarioa eta istripu arriskua ikusita nola ez dioten arazoari irtenbiderik ematen. Nafarroa osoan ez dago horrelako egoerarik. Herrira inguratzen ari diren behiekin eta betizuekin, herritarrak inoiz baino kezkatuagoak daude, zer esanik ez, inork kudeatzen ez dituen behi eta zezen arrisku-tsuak daudela ikasi dutenetik. Herritar batzuk mendira ateratzeko beldur dira. Azken al-dian udalarekin gai horri irtenbideak emateko mugitzen ari gara eta udalak eta Nafarroako Gobernuak pausoak emateko esperoan gaude. Ez dut ikusten ez bata eta ez bestea irtenbidea emateko ausardiarekin. Baina batzordean irtenbide eraginkor-ak aurkeztuko ditugu. Borondatea eta ausardia aski dira.

Nolako harremana duzue udalarekin?

Udal berria osatu zenean egoera aldatzeko itxaropentsu sentitu ginen, eta oso harreman onarekin hasi ginen. Mugimenduak egin dituzte baina ez dakite baserri ingurua eta abeltzaintza kudeatzeko erabaki egokiak hartzen. Hortaz, pixkanaka itzaltzen joan da gure itxaropena. Udalak gurekin duen jarrera aldatzeko lanean ari gara. Beti ere baserrigintzaz eta mendiaren kudeaketaz ari naiz. Momentu honetan harremana nahiko okertua dago. Pauso bat aurrera eta bestea atzera eginez gabiltza. Benetako erabakiak hartzerakoan, gurekin elkartu eta ahal den neurrian zer egin behar den adostea beharrezkoa da, bestela jazarpenaren bidean jarraituko dute.

Zuen oharrari udalak bere erantzuna eman zion...

Errealitateetik kanpoko erantzuna jaso genuen. Ez dizkiogu al-dizkari bati gezurrak eta egiak erdizka esaten, mundu guztiak irakur ditzan. Baina ulertzen dugu udal batek bere hanka sartzeak nolabait itxuratu nahi izana. Bi auzotan lau aska egin dira, baina kontua da mendian azientak amiltzen eta hiltzen



Juanjo Elizalde goizuetarrak abeltzaintza du ogibide.

diren puntu beltz bat dagoela: Eskutxuloko erreka. Azken 20 urteetan 15 bat betizu eta behor hil dira. Inbertsio horrekin leku hori itxi eta babestua geldi zitekeen. Ez ziguten aukerarik eman erabakitzerakoan eta garbi dago ez dutela asmatu. Hala ere, min haundiena egin diguna Illarrietara doan pista konpontzeko 40.000 euroko inbertsioa ezkutuan erabaki izana da. Baserritarrok ia erabiltzen ez dugun bidea da. Udalak bilera baterako deia egin zigunean, lau baserritar bildu ginen eta gure ekarpenak egin genituen. Udaleko zinegotzi batek bakarrik babestu zuen bide hori konpontzeko aukera, auskalo zein asmorekin. Bide hori erabilgarri dagoela eta auzo horretan lehentasun handiagoak daudela erantzun genion. Badi-rudi aurrez erabakia zeukata-la zer egin, bileran ez baitzen adostu inbertsioak nola egin. Esleipein hori birbildaltzeko eskatu diogu udalari eta espero dugu egitea, bestela egundoko lapurreta eta iruzurra izanen

da. Bestetik, udalak «baserritarrek zerga bidez gainontzeko goizuetarrek bezala dituzten ondasunen baitako ekarpena egiten dutela, eta udalak inbertsioak egiterakoan onura kolektiboa hartzen duela aintzat» adierazi zuen, «ez norberak egiten duen ekarpena». Ba udalak jakin behar du baserritarren kolektiboa zisko egina dagoela eta behar handiak dituela.

Nolako harremana dute goizuetarrek baserri munduarekin?

Oro har, oso egokia. Gero eta sentibilizatuagoak daude. Adibidez, gure produktuak erosteko ekimenak egin dira, gehienak udalak bultzatuta. Dendetan ere eskuzabaltasunez hartzen dituzte gure produktuak eta herritarrak erantzuten ari dira. **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

«BASERRITARREN KOLEKTIBOA ZISKO EGINA DAGO, BEHAR HANDIAK DITU»

Baserri ingurua eta mendiaren egoera baldintza egokian jartzeko gai bagara, etorkizuna ziurtatua daukagu. Egoera txarrean segitzen badu baserriaren gainbehera atzeraezina izanen da. Etorkizuna gure esku dago. **Zein dira zuen erronkak?**

Epe motzera momentu berezian gaude, herri lurren ordenantza berria eta hamar urteko mendiko herri lurren hobekuntzak finkatu behar dira. Hortaz aparte, udalak herri lurretarako 5.000 euroko gastua aurreikusi du. Hiru alde horiek udalaren eta baserritarren artean landu eta zentzuz adostuta aurrera atera behar ditugu. Ez du boterean dagoenakin inposatu behar, orain arte bezala, are gutxiago baserritarrik ez dagoen talde batek. Illarrietako bidea konpontzeko

«BETIZUEN ARAZOA KONPONTZEKO PROPOSAMENA AURKEZTUKO DUGU»

esleipena birbideratzeak inguru horren egoera hobetuko luke, eta hori lehenbailehen egin behar da. Larre sariak direla, NPBko hektareako ordaindutakoa dela, kontribuzioa, ibilgailuen ordainsaria, obren baimenak... Baserritarrok ordaintzen ditugun zergetatik diru asko sartzen da udalean, eta horien eta besteen kudeaketa sakonki berraztertu behar dugu. Egoerak aldaketa eskatzen badu, aldatu beharko dugu.

Baserria krisi egoeran ikusten duzu?

Bai. Batez ere pentsuaren, argiaren eta gasolioaren igoerarekin kolokan gaude. Denbora laburrean dena normalizatzen ez bada, ustiategi askok itxi beste aukerarik ez dute izanen. **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Ez dugu etsi nahi eta udalarekin pausoak eman nahian harremanetan segitzen dugu. Badi-rudi zerbait irekitzen hasi dela. Badakigu udaleko kideek asmo onak dituztela eta elkar ulertuz eta kolaborazio zuzena izanez, elkarbizitza sana sortzeko gai izatea da baserritarren ametsa.

Gondendiagako benta auzolanean moldatu nahi dute

Apirilaren 23an egin zuten lehenengo auzolan saioa. Auzolan egunen egutegia osatuko dute aitzinerago

TTIPI-TTAPA

Berako herritar talde batek hala eskatuta, Berako Udalak Gondendiagako benta moldatzeko deialdia egin du. Benta hau, Benta Beltza eta *Hei-diren* etxetxoak ere deitua, 32. mugarrian dago, Lizuniagatik hurbil eta jabetza publikokoa da.

Azken hamarkadetan ez zaionez erabilerarik eman, eraikina kaltetzen joan da eta orain egoera tamalgarrian dago. Helburua auzolanean benta berritzea da, boluntarioek esku lana jarrita eta udalak behar diren materialak ordainduz. Apirilaren 23an egin zuten auzolanerako lehen deialdia, eta auzolan egunen egutegi bat osatzen joanen dira aitzinerago, egin beharreko lanak zehaztu ahala.

Gondendiaga Bera eta Sara arteko mugan kokatuta dagoen natur ingurune zoragarria da. Auzolanaren helburua eraikina berritu, eta erabilera publiko bat ematea litzateke. Mendizaleentzat aterpe hartzeko tokia izan daiteke, atsedeen hartzeko tokia, jendea-



Gondendiagako benta. UTZITAKOA

rentzat naturaz gozatzeko elkargune bat...

Auzolan honen bidez, herritarren parte hartzea bultzatu nahi du Berako Udalak. «Lagundu nahi duen edozeinek parte hartu dezake. Baldintza bakarra elkar lanean eta talde lanean aritzeko borondatea izatea da. Espazio eta eraikin hau berreskuratuz, gure herriko ondarea zaintzen ari gara, denon ondarea alegia», nabarmendu du udalak.

'Akatsa da bidea, baina bada biderik gabeko akatsik ere' erakusketa

A.LARRETXE

Berako Labiaga Ikastolako erakusketa aretoan Ramon Zabalegi artista irundarraren *Akatsa da bidea, baina bada biderik gabeko akatsik ere* erakusketa dago ikusgai. Apirilaren 23an ireki zuten erakusketa, eta ekainaren 5a bi-

tartean ikusteko aukera izanen da larunbat eta igandetan 16:00etatik 20:00etara.

Batez ere marrazki eta grabatuak landu izan ditu Zabalegi bere obran, eta musika taldeentzako eta literatura lanetarako egiten du lan bereziki.



Apirilaren 21ean lurra mugitu zen Plaza Zaharreko zuloan. UTZITAKOA

Lurra mugitu da urtarrilean agertu zen Plaza zaharreko zuloan

A. LARRETXE

Apirilaren 21ean lurra mugitu zen urtarrilean Plaza Zaharrean agerturiko zuloan. Estaltze lanak egin dituen enpresako ingeniariak azterketa egin ondotik, zuloa berriz ez tapatzeko aholkua eman zuen. Ur-hornidura eta gas instalazioa ez dira kaltetu. Udalak jakinara-

zi duenez, kanal berria egiteko proiektua eskatuta dago, eta lanak aurten hasi eta bukatzeko asmoa dute: «Udaletik ahal dugun guztia egiten ari gara prozesu hau azkartzeko», nabarmendu dute. Edozein zalantza izanez gero udalera gerturatzeko deia luzatu die herritarrei.

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

JAIÑE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 · Alizate, 21 · BERA

ttipi-ttapa
744 484 361

MARITX
INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 · BERA

ola SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130
Bertako sagarrenekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
Sagardo ekologikoa
Sagardotegiko menua
Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

«Suhiltzaile izateko gogoa izatea da garrantzitsuena»

JON ALTUNA BERA KO SUHILTZAILE BOLUNTARIOA

A. LARRETxea

1906. urtean sortu zuten Beran Nafarroako lehen suhiltzaile parkea. Geroztik, dozenaka dira suhiltzaile boluntario gisa lanean aritu diren herritarrak. Kide berriak biltzeko deia egin dute berriki.

Suhiltzaile boluntario izateko deia zabaldu duzue Beran, zergatik?

Azken aldian jende dezente joan da taldetik adinagatik eta arazo pertsonalengatik, eta gutxi geratu gara. 11 gara taldean orain, eta ongi etorriko litzaiguke jende gehiago elkartzea taldera.

Zein motatako herritarrek osatzen duzue taldea gaur egun?

Bortz nahiko helduak dira, eta gainerakoak gazteagoak, 20 urtetik 38 urte artekoak, eta hasi berriak. Gizonak zein emakumeak gaude taldean.

Zein dira suhiltzaile boluntarioen egitekoak?

Larrialdi bat baldin bada herrian gu gara ateratzen garen lehenengoak. Larrialdi zerbitzutik iristen zaigu abisua, bai sute bat bada edo baita uholdeetan, istripuetan edo erreskateak egiteko.

Zein izaten da une horretan zuen lana?

Profesionalak etorri bitartean lehen arreta ematen dugu. Gero, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak etortzen dira, eta beraien agindupean paratzen gara.

Zergatik da garrantzitsua Beran suhiltzaile boluntarioak izatea?

Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen parkea 30 minututik gora dago kamioian, eta etxe batek edo tximinia batek su hartzen badu gu hagitzez ere lehenago ailegatzen ahal gara.

Nolako prestakuntza jasotzen duzue?

Guk gure artean praktika saioak egiten ditugu hila batean behin, baina horrez gain Iruñean profesionalekin ikastaroa egin behar da. Ez da ikastaro hagitza sakona, baina, oinarri bat izateko balio du.

Zein baldintza bete behar dira suhiltzaile boluntario izateko?

18 urtetik gorakoa izan behar da. 16 urtetik gorakoen kasuan, heldu baten ardurapean izan beharko luke. Horrez gain, garrantzitsuena gogoa izatea da, ez da bertzelako baldintza fisiko berezirik behar.



Suhiltzaileak lanean. UTZITAKOA

Azken uholdeetan eta iazko sute handian ezinbertzekoa izan zen zuen lana. Uste duzue herritarrek behar bezala eskertzen dutela?

Nik pentsatzen dut baietz, edo hori pentsatu nahiko nuke. Tximinia bat erretzean nabaritzen da esker ona. Uholde edo mendiko sute batean? Egia da azken uholdeetan ez genduela herritarren laguntza handirik izan. Iruditu zitzaigun jendeari berdin zitzaiola, eta uste zutela gure lana zela kallea garbitzea, eta ez da hala. Gu larrialdi batean ateratzeko

«GAUR EGUN 11 GARA TALDEAN ETA GEHIAGO IZATEA KOMENI DA»

prest gaude, baina, bertze horiek ez dira gure egitekoak **Instituzioen babesa jasotzen duzue?**

Nafarroako Gobernuak ematen du dirua suhiltzaile parkearen azpiegiturak mantentzeko, eta Berako Udalak ere bai.

Norbaitek suhiltzaileen parte izan nahi badu, zer egin beharko luke?

Herriko etxera deitu, eta han erran parte hartu nahi duela. Beraiek jarriko dira gurekin harremanetan, eta guk erranen diogu noiz hasi, noiz egin praktikak eta arropa noiz ematen diogun.

Badira egun batzuk deialdia luzatu zenutela. Nolako erantzuna izan du orain arte?

Momentuz ez dugu erantzun zabalik izan. Hondarribiko suhiltzaile profesional batek kontaktatu du laguntzeko interesa duelako, eta berarekin paratu gara harremanetan, baina, bertze erantzunik ez dugu jaso. Zain gaude. Hala ere, ohartzen gara zerbait boluntarioa dela, zure denbora eman behar duzula, eta ez dela erraza izaten. Ea norbait animatzen den.

Zenbat denbora eskaini behar zaio lanari?

Argi izan behar da ez duzula beti herrian egon behar. Etxean bazaude eta joateko deia jasotzen bada joan behar da. Baina horrek ez du erran nahi ezin zarela hemendik atera hondartzara, edo oporretara. Herrian barrena bazaude erantzun behar duzu deia.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LABE ZAR

Astrolabonetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

Manterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



AITOR AROTZENA

Hirugarren mailako azken partida berezia Mastegin

Hirugarren mailako denboraldi historiko honetako etxeko azken partida apirilaren 23an jokatu zuen Beti Gaztek. Barakaldo talde handiarekin Urki Txoperena etorri baitzen bisitan. Berari eta Irlandatik etorritako Jon Ubiriari omenaldi xumea egin zieten.

Salvador Yanciren omenezko proba egingen dute berriz

Bi urteko geldialdiaren ondotik maiatzaren 15ean antolatu du Beti Gaztek zikloturista probaren zazpigarren edizioa

AITOR AROTZENA

Bi urteko derrigortutako geldialdiaren ondotik, Salvador Yanci zenaren omenez zazpigarren aldiz bizikleta ibilaldia antolatu du Beti Gaztek udalaren laguntzaz maiatzaren 15erako. Izena emateko aukera irekia dago www.kirol-probak.com webgunean, hileren 12ra bitarte. Egun berean ez da izena emateko aukerarik izanen. Beti Gazteko bazkide federatuek 5 euro ordaindu beharko dute, bazkide federatu gabeek 10 euro, bazkide ez diren federatuek 10 euro eta bazkide ez diren federatu gabeko txirrindulariek 15 euro. Txirrindulariak maiatzaren 15ean, igandean 08:30ean abiatuko dira Plaza Zaharretik eta aurtin ibilbide luzexegoa izanen dute, 130 kilometrokoa. Zigako gaina, Belate eta Oro-



Joskintza tailerrekoak mantak josten.

kieta izanen dira txirrindulariek gainditu beharko dituzten koskarik altuenak.

Joskintza tailerrekoen mantak zahar etxera

Bertze aldetik, azken asteetan Beti Gazte elkartearen egoitzan egindako joskintza ikastaroan ikasitakoa praktikara eramanez, apirilaren 20an joskintza taldekoek Andra Mari Zahar Etxekoei mantak josi eta eman zizkieten.

Antzerkia, solasaldia eta musika maiatzeko kultur egitarau oparoan

A. AROTZENA

Maiatzaren 1ean Eugenia Arriola, Itziar Telletxea eta Miren Irurtzun herritarrek taularatzekoa zuten *Viva la República* antzezlanaren ondotik, igande honetan, **maiatzak 8, 19:00etan Eresia. Lurra arin bekizu, ama antzerki eta dantza ikuskizuna** izanen dute Harriondoa kultur etxean.

Udalbiltzak sustatutako eta antolatutako Geuretik Sortuak proiektuaren barrenean, Oier Zuñigak, Eneko Gil dantzariarekin eta Belen Cruz aktorearekin batera antzeztutako lan

honek, ama baten galtzearen dolua antzezteko asmoa du, antzerkia eta dantza tartekatuz. Sarrerak borts eurotan salgai daude udalarem webgunean.

Maiatzaren 13an, Txani Rodriguezek *Los últimos románticos* solasaldia eskainiko du 17:30ean liburutegian.

Maiatzaren 14an, bertzelde, Giltzarri abesbatzak antolatutako abesbatzen topaketa egingen dute 20:00etan Harriondoa. Sutargi (Lezo, Gipuzkoa) eta Bihotzez (Getaria, Lapurdi) abesbatzak etorriko dira.

XAGU LIBURUDENDA
Tel / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USURRI EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALBIZKARIAK



Ikastaroan parte hartu duten dendarietako batzuk, Marta Pineda irakaslearekin. UTZITAKOIA

Udaberriko erakusleihoak berritzeko ikastaroa

Berako Larun Haizpek antolatu du Cederna Garalurrekin elkarlanean eta Bera eta Doneztebeko dendek parte hartu dute

TTIPI-TTAPA

«Ahaleginak egiten ditugu gure herriak leku hobeak izan daitezzen». Xede horrekin eta saltokia hobetzeko, *Salmenta puntuaren diseinua: Udaberriko erakusleihoaren egitea* ikastaroa antolatu eta egin du Berako Larun Haizpe elkarteak, Cederna Garalurrekin elkarlanean eta Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren finantzazioarekin. Gure inguruan Elgorriagako Artzainaren Museoa diseinatzeagatik eta antolatzeagatik ezagun egin den Marta Pineda andaluziarra izan dute irakasle.

Larun Haizpe elkarteak antolatua izanagatik, Baztan-Bidasoko komertzio guztiei zabaldu diete deialdia. Doneztebeko Kimetz belardendak erantzun dio deialdi horri, baina gainerako parte-har-

tzaile guztiak Berakoak izan dira: Oinatz zapata denda, Martutzak arropa denda, Igone liburu denda, Xulufraia arropa denda, Xarma estetika Zela Kirolak kirol denda, Arturo arropa denda eta Sustrai belar denda.

Joan den urteko azaroan alde teorikoa landu zuten eta 2022ko martxoan eta apirilean alde praktikoa, eta biei esker, udaberriko erakusleiho dotoreak apaindu dituzte. Batzuk ikastaroaren bi zatiak eta bertze batzuk bakarra egin dute, «ez baita erraza larunbat arratsaldetan, denda itxi eta berriz ere

**«HEMENGU DENDA
TTIKIEK
HURBILTASUNA
ESKANTZEN DUTE»**

lanari ekitea». Bi zatiak osatu dituzten komertzioek egin dituzte udaberriko erakusleihoak. Gustura daude ikastaroak emandakoarekin eta erakusleihoen itxura berriarekin eta beharbada, azaroan errepikatuko lukete: «Horretarako komertzio gehiago animatzea nahiko genuke, ez Berakoak bakarrik, baita Lesaka, Doneztebe eta Elizondokoak ere».

«Bezeroa ezin duzu sartzea behartu, motibatu baizik»

Marta Pineda irakasleak aipatu duenez, «ezin zaio bezeroari denda batera sartzea behartu, baina bai komertzio hori horretara sartzeko motibazioa eman. Erakusleihoak produktua erakustez gain, salmenta puntua dinamizatu egiten du. Bada uste oker bat, dendariak dendan eseri eta bezeroak sartzeko esperoan egoten direla dioena, baina hori ez da horrela: denda ttikiek ezin dute azalera handiekin edo etxetik internet bidez erosteko erosotasunarekin konpetitu, baina bai beraien giza baliabideekin, hurbiltasunarekin, arretarekin, aholkularitzarekin, erosketa esperientziarekin... horiek bertzeek ezin dute eskaini».



Pazko Asteleheneko elkarretaratzea.

Ekaineko bizikleta martxa prestatzen hasiko dira pentsionistak

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko pentsionistek elkarretaratzea egin zuten apirilaren 18an Lesakako plazan. Aitzineko hilabetetik, zenbait argi izpi agertu direla zioten pentsionistek: «Bidasoko kirurgia planta ez dutela itxiko, Elizondoko Zahar Etxeko hitzarmenaren aurre-akordioa, eta bertzalde, Korrikan parte hartzeak, gazte mugimenduen martxa, aberri eguna... Bertzetik, bankuek zerbitzu duina emate aldera mozioak sartu dituzte eskualdeko udaletan eta Etxalarren eta Lesakan onartuak dituzte dagoeneko».

Bizikleta martxa

Etxeko lanak edo erronkak baditu pentsionisten mugimenduak: «Ekain erdi aldera ailegatuko da eskualde honetara pentsionisten bizikleta martxa. Guri tokatuko zaigu behar den azpiegitura antolatzea eta laguntza eskaintzea. Maiatzaren 16rako izanen ditugu xehetasun gehiago, eta orduan aipatuko dugu zein behar izanen diren zehazki». Bertzalde, abian da Madrilgo kongresuan aurkezteko sinadura bilketa, eskatuz pentsioak benetako KPIren arabera egokitu dezaten, «eta ez egin duten tranparen bidez».

Turista mugimendu handia nabaritu da herrian

Turismo bulegoa zabalik egon da Aste Santuan eta herriko landetxeetan ere hainbat turista ibili dira

IRUNE ELIZAGOIEN

Aste Santuan bortz egunez egon da zabalik turismo bulegoa, baina asteazkenetik mugimendua nabari zen herrian. Aurtengoan 136 pertsona pasatu dira Turismo Bulegotik eta badirudi pandemia ondotik turisten kantitatea errekuperatzen ari dela poliki-poliki. 2020an itxita egon zen Turismo Bulegoa konfinamendua zela medio eta lehengo urtean 79 lagun baino ez ziren etorri (lurraldeko konfinamendua ezarrita zegoen). Gipuzkoarrak izan dira

gehien gerturatutakoak, batez ere egun pasa etorriak. Bertalde, Alacant, Madril, Bizkaia eta Valentziakoek egonaldiak egin dituzte gure inguruan. Herriko landetxeetan egon dira gehienak, natura bila etorriak, hirietatik kanpora ateratakoak.

136 PERTSONA PASATU DIRA TURISMO BULEGOTIK

Euskarazko mintza praktikatuko barnetegia Mokorreko Bordan

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko Mokorreko Borda baserrian *Euskaraz bizi gure artean* jarduerako zazpigarren edizioa egingen dute maiatzaren 13tik 15era.

Hizkuntza, jolasa, lurra, gorputza, harremanak, sormena... elkar harremandu eta komu-

nikatzeko aukera izanen dute aurtun ere parte-hartzaileek, euskara maila guztietako eta adin guztietako pertsonen zuzendutako barnetegi berezi honetan.

Jone Arrospide eta Oihana Lopez izanen dira mintzalagun gidariak.



ARANTXA MIKELESTORENA

Arkupeak elkarteko herritarren besta

Arkupeak elkarteko herritarrek urteko besta ospatu zuten apirilaren 24an. 27 lagunek La Basquen bazkaldu zuten. Mus txapelketan, Jose Joaquin Zelaieta eta Xanti Elizagoien izan ziren txapeldun, Domingo Aranburu-Jesus Arribillaga bigarren eta Joxe Mari Maia-Joxemari Olagarai hirugarren.



OIHAN IPARRAGIRRE

Udaberriko pilota txapelketa jokoan

Altxata elkarteak antolatuta, apirilaren 13an hasi ziren Etxalarko udaberriko pilota txapelketa jokatzeko. Denetara 30 pilotari ari dira parte hartzen, bortz mailatan banatuak eta ekaina erdira arte jokatu dituzte partidak. Argazkia 2019koa da, 2020an eta 2021ean ez baitzen jokatzetik izan.


BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA


LOREAN ETA LANBAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826


EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com


INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA


Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 • BERA
jauenabera@gmail.com



JAKINARAZTEN DA: 2022ko lehen urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetao tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe

2022ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
Zentsatutako ebekibizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	81,40 €	
Zaborontzia 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	69,36 €	
Zaborontzia 500 metrotik gora dauden baserriak	57,02 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elkagaien eta ebekibizitza sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ile-apaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak	82,72 €	
2. Merkataritza. Elkagai dendak (barategiak, arraindegia, janari-dendak), elektropailu dendak eta farmaziak	162,38 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	247,66 €	
1. Ostalua. Noizbehinka irekitzen diren ostalua eta biltegiak eta jarrailan irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	165,04 €	
2. Ostalua. 30 m ² baino azalera handiagoko ostalua eta janari-denda daukaten ostalua	330,38 €	
3. Ostalua. Pub eta diskotekak	412,70 €	
1. Jatebidea. Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatebidea	412,70 €	
2. Jatebidea. Borts mahai baino gehiago dituzten jatebidea	743,18 €	

Ordaintzeko era

Ordaintzetak banketxeetan helbideratuta ez dituztenek:
Abisuan agertzen den edozein kontutan egiten da ordaintzeta nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.
Ordaintzetak banketxeetan helbideratuta dituztenak:
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
1. Landexa: 6 teki edo gutxiagokoak. Zaborontzia 200 metrotik 500 metrora dauden landexak	82,72 € 70,38 €	
Zaborontzia 500 metrotik gora dauden landexak	57,94 €	
2. Landexa: 6 teki baino gehiagokoak. Zaborontzia 200 metrotik 500 metrora dauden landexak	165,54 € 140,86 €	
Zaborontzia 500 metrotik gora dauden landexak	115,88 €	
1. Hostala, Hamar logela edo gutxiagokoak.	577,62 €	
2. Hostala, Hamar logela baino gehiagokoak	825,38 €	
Merkataritzako saltokiak. Opariak bakarik saltzeko	412,18 €	
Merkataritzako saltokiak. Janari-dendak edo ostaludunak	825,38 €	
Merkataritzako saltokiak. Jatebidea	1.238,18 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduera: argiketariak, iturginak, pintoreak...	82,72 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	165,04 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	412,70 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	825,38 €	
Lantegiak, 61-150 langile bitarte	1.238,18 €	
Lantegiak, 151-300 langile bitarte	2.346,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin	3.458,00 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	802,12 €	

Ordaintzeko epea

- 2022ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2022ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aldabe frontballean ere txapeldun

Nafarroako frontball txapelketaren finalak jokatu zituzten apirilaren 13an Asiaingo Mostazulo pilotalekuan. Gizonezkoetan, Oberenako bi pilotari izan ziren aurrez aurre finalean eta Joseba Aldabe igantziarrak irabazi zion Yaniz taldekideari (10-4 eta 10-6).

Oihan Telletxea euskal selekzioarekin

Euskal Selekzioak Oihan Telletxea Sein herriko gaztetxea deitu du 14 urtez azpiko Espainiako futbol txapelketan parte hartzera. Txapelketa apirilaren 30etik maiatzaren 1era jokatzekoa zen eta lehenbiziko fasea Murtzia, Kantabria eta Kanariar Uharten kontra jokatzekoa zuen. Zorionak!



Zenbait ikastaro antolatu ditu guraso elkarteak

Herritar guztiei zuzendutako lehen sorospen ikastaroa eta nerabeetan substantzien kontsumo desagokiari buruzkoak

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Osasun egoerak aukera ematen hasi den honetan, ari da Guraso Elkarte Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin lanean; oraingo honetan zenbait ikastaro antolatu ditu guraso, herritar nahiz nerabeei zuzenduak, hala nola, herritar guztiei zuzendutako Lehen sorospen ikastaroa, nerabeek egiten ahal duten substantzien kontsumo desagokiari buruzkoa... Ikastaroak debaldekoak izanen dira eta informazio gehiago aitzinerago emanen dugu.



Mikel Zelestinok erretiroa hartu du

gutu, bildu, eta horiekin uken-du, enplaste, olio edota kremak egiten ikasten hasiak dira.

Mikel Zelestinok erretiroa

Aspaldiko urteetan Igantziko eskolan aritu den Mikel Zelestinok irakasleak erretiroa hartu zuen joan den apirilaren 29an. Agur berezi bezain hunkigarria eskaini zioten eskolako ikasle zein irakasleek, eskolan emandako urteak eta lana eskertuz.

Sendabelarren ikastaroa

Udalak antolatuta, bertzalde, sendabelarren inguruko ikastaroa egiten ari dira maiatzeko borts igandeetan. Jakinduria tradizionaletik abiatuz, inguruko sendabelarrak eza-

Auzolanean aritzen direnei udalaren eskertza

Udaletik publikoki eskertu nahi dute «urtean zehar auzolanaren bidez jendeak egiten duen lana». Bereziki eskerak eman nahi dizkiete mendiarbi mantentze laguntzen dutenei, «horreke kartzan duen onura guztiarekin. Lan isila, oharkabean pasatzen dena».

Baratzondo elkarteak jubilatutako ere martxan

Maiatzaren 14an opil jatea antolatu du Baratzondo elkarteak. Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 11 arte eman dezakete izena. Jubilatutako maiatzaren 20rako bazkari bat ere antolatzen ari dira, herriko zein Lesakako Arkupeak elkarteak kideentzat.

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Mendi itzulirako izen ematea zabaldu du Ekaitza Elkartek

Elkartea buru-belarri ari da aurten hamargarren edizioa beteko duen mendi itzulirako antolaketa lanetan

NEREA ALZURI

Duela aste batzuetako aldizkarian iragarri bezala, berriz ere itzuli da Ekaitza Elkartek antolatzen duen ekimena: maiatzaren 22an, Arantzako X. Mendi Itzulia egingen da herria inguratzen duten mendietan barna.

07:00etatik 07:30era plazatik abiatuko den ibilbideak 28 bat kilometro ditu eta 1.600 metroko malda. Hasieran maldan beheiti Arrata errekarra jausti eta Aranibar inguruan erreka bazterrean utzi eta maldan goiti abiatuko dira mendizaleak. Hortik, eguraldia lagun izanen den itxaropenarekin, inguru paregabe bez gozatzeko aukera izanen dute, Arantzako mendi zirkua osatuz. Itsas-zelaieta (515 m) giblean utzita, Izu (829 m), Ibintza (1.032 m), Ekaitza (1.042 m), Illurdi



2018ko itzuliko irudia. MIKEL LARRETxea

(1.075 m), Mairubaratza (750 m) eta Zepurutik pasatu ondok, herriko plazan izanen da helmuga. Bidean, kontrol puntuak, jatekoak, edatekoak eta medikuak izanen dira. Ibilaldia akituta, parte hartzaileei luntxa emanen diete plazan.

Ibilaldian parte hartzeko bi bide daude: egunean bertan, edo aitzinetik izena ematen ahal da www.mendizmendi.com webgunean.



GORKA GOÑI

Gazteek sendotza egin dute

Joan den maiatzaren 23an, argazkian ageri diren herriko eta Igantziko hamalau gazteek sendotza egin zuten. Aldi honetan Arantzian egin zuten hitzordua. Hori baino lehen, urtean zehar larunbatetan, prestatzeko, hamabortzean behin bildu dira Martin herriko apezarekin.

Sendabelarren bi ikastaro antolatu ditu udalak

Joan den apirilaren 27an has-tekoa zen udalak antolatutako sendabelarren ikastaroa eta maiatzaren 4an eta 11n izanen du segida. Baina jendearen erantzun ona ikusita, sendabelarrei buruzko bigarren ikastaro bat paratu du martxan, hau ere, Laura Gurbindorekin. Ortzegun honetan, maiatzaren 5ean, izanen dute lehenbiziko saioa, eta ondoko ortzegunetan segituko dute: maiatzaren 12an eta 19an. Saio guztiak arratsaldetan izanen dira, 16:00etatik 20:00etara eta herriko plazan bilduko dira.

Eskolarteko bertsolari txapelketa Arantzian

Nafarroako Bertso Eskolen asteburua Arantzian ospatuko dute maiatzaren 21ean eta 22an. Bi egunez, hainbat jarduerak egingen dituzte: ezagutza jolasak, mendi ibilaldia, bingo musika-tuak, ginkanak... Egitariaren barrenean, Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ere jokatu dute, maiatzaren 21ean, 17:00etan. Otorduak eta lo Aterpean egingen dituzte. Ez da asteburuko hitzordu bakarra izanen. Mendi itzuliaz gain, Ezkioko pilota eskolakoek herriko pilota eskolakoekin topaketa egingen dute herrian.



DBHko ikasleak eta irakasleak Bartzelonara bidean. ESKOLAK UTZITAKOA

Eskolako ikasleen ikasturte akabailako ikasbidaia eta kanpaldiak hasi dira

NEREA ALZURI

Joan den astean, DBHko lehenbiziko eta bigarren mailako ikasleek ikasbidaia Bartzelonan egonaldia egin zuten, Eli Lizaso eta Danel Lizartza irakasleekin. Joan-etorria trenetuz Iruñetik egin zuten eta Bartzelona hiria eta ingurua ezagutu eta bisitatzeko auke-

ra izan zuten: Cosmocaixa, Port Aventura, Paitball eta Wipe out jarduerak...

Bertzetik, maiatzaren 24an eta 25ean, Lehen Hezkuntzako ikasleak Irrisarri Landera joanen dira. Haur Hezkuntzakoak, berriz, maiatzaren 25ean egun-pasa joanen dira Irrisarri Landera.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokalruak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Asteburu kulturala maiatzaren 13an, 14an eta 15ean

Maiatzaren 21erako osasunaren aldeko ekintzak antolatu dituzte, eta Saray eta MPS elkarteentzako dirua bilduko dute

MAIDER PETRIRENA SUNBILLA

Bueltan dira Sunbillako kultur egunak, eta egitarau oparoa izanen dute aurtengoan ere. Maiatzaren 13a, ortziralea, 14a, larunbata, eta 15a, igandea, izanen dira ekintzak, eta eskolako guraso elkarteak, Antrotokiketa Sunbillako Udalak antolatu dituzte elkarlanean.

Maiatzaren 13an, 17:00etan hasiko dira ekitaldiak haur jokoekin. Ondotik, 19:30ean bokata jatea izanen da. Maiatzaren 11 baino lehen izena eman behar da bokata jatekorako, apymasunbilla@gmail.com helbidean, eta izena, bokata kopurua eta telefonoa eman behar dira. Bokata jatearekin batera, Hurih taldearen kontzertua izanen da, eta 21:00etan afari autogestionatua eginen dute Ulibeltzak elkarteak.

Maiatzaren 14an, larunbata, 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara puzgarriak izanen dira haurrentzat. 11:00etan gazteen herri kirolak izanen dituzte. 14:00etan bazkaria eginen dute Bustitz ostatuan. Ondotik, 18:30ean tortilla lehiaketan izena emateko epea irekiko dute eta ordu erdi beranduago hasiko da tortilla lehiaketa. Talde bakoitzak eraman beharko ditu tortillak egiteko tresnak eta osagaiak. Ondotik, musika eta gaupasa izanen dituzte DJ Bullekin.

Maiatzaren 15ean, igandea, asteburu kulturala bukatzeko 09:00etan mendi itzulua eginen dute Zumalekura plazatik aterata. Ondotik, 12:00etan gaiteroen kalejira izanen da herrian zehar.

Osasunaren aldeko besta

Maiatzaren 21erako hainbat ekintza antolatu dituzte Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkartearen eta MPS Lisosomales elkartearen alde. 10:00etan martxa arrosa eta urdina eginen dituzte herrian zehar musikaz alaiturik. Ondotik, 11:30ean bi ekintza izanen dira. Alde batetik 11:30ean gaztetxoentzako mural margoketa eginen dute frontoi kanpoko frontisean, eta plazan aldiz Sarayko ki-deekin hitzaldia izanen da. 13:30ean bazkari solidarioa izanen da elizako aterpean. Txartelak Fonda ostatuan eta Marisol janari dendan daude salgai, eta bakoitzak bere platera, edalontzia eta mahai-tresnak eraman beharko ditu. Bazkaria bukatzean bingoa eta gazta pisaketa izanen dituzte.

16:00etan izanen du jarraipena egitarauak lehen sorospen tailerrarekin. Arreta berezia paratuko dute BBB eta desfibriladoreen erabileran, eta haurrei eta helduei zuzendua izanen da. 18:00etan bingoa izanen dute plazan, 20:00etan taloak eta eguna bukatzeko 20:30ean mexikanak Chuchin Ibañez eta Jesus Tapizen eskutik.

Egunean zehar bildutako dirua Saray eta MPS elkartei emanen zaie.

HIRU EGUNEZ KULTURA EKITALDIAK IZANEN DIRA

Ariztigain kanpinak irabazi du Sunbillako 8. pintxoaren astea

MAIDER PETRIRENA

Apirilaren 14tik 17ra bitarte ospatu zen 8. pintxo astea Bustitz eta Fonda ostatuak eta Ariztigain kanpinak antolatu-ta. Ortzegunean eta ortziralean pintxo bat dastatzeko aukera izan zen, eta ortziralean eta larunbatean bigarren bat. Bigarren txandako Ariztigain kanpineko pintxoak irabazi zuen sariketa, foiez eta onddoz betetako gazta saretxoak. Guztira 1.020 pintxo saldu zituzten, eta botoa eman zuten partaide guztien artean Iñaki Aranbillet Jaimerenari tokatu zi-



Iñaki Aranbillet. AINTZANE ARRETXEA

tzaizkion magra eta bi botila ardo. Mezu honen bidez eskerrak eman bertze urte batez ostatuari pintxo aste eder hau antolatzeagatik baita parte hartu duten guztiei ere.

Herriko txirrindulariek emaitza bikainak lortu dituzte Katalunian

MAIDER PETRIRENA

Apirilaren 14tik 17ra bitarte Igor Agesta Agirre, Joseba Gartzia Agesta eta Koldo Herrera Urroz txirrindulariek Volcat Katalunian lau etapako lasterketan parte hartu zuten, eta berriz ere sasoiko daude-la erakutsi zuten.

Gozamen ederra jaso zuten hiruek, eta denen artean aipatzekoa da 23 urtez azpikoen kategorian, Koldo Herrerak podiuma lortu zuela, bigarren postua eskuratuz. Elite mailan, berriz, 27. postua lortu zuen. Zorionak hirukote, eta segi horrela!



ALEJANDRO FERNANDEZ INDA

Prozesioa egin dute ortzirale santuan

Ezin aipatu gabe utzi, Ortzirale Santu egunean, eguraldi ederra lagun prozesioa egin zutela hainbat herritarrek. Pausoak eramateaz gain, herriko abesbatzak kantatu zuen, eta argazkian ageri den bezala herriko haurrek apostoluz beztitu ziren.



Berriz ere Malerrekako ahari dotoreenak plazaratuko dituzte. ALICIA DEL CASTILLO

Bi urteren ondotik Udaberriko Feria maiatzaren 6an

Ortzirale goizean egingen dute Malerrekako ahari lehiaketa eta arratsaldean zenbait ekitaldi antolatu ditu guraso elkarteak

TTIPI-TTAPA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, maiatzaren 6an (ortziralean) Merkatuko plazan ospatuko da Udaberriko Feria, Doneztebeko Udalak eta Cerderna Garalur elkarteak antolatua. Ohi bezala, Malerrekako ahari lehiaketa ere egun horretan erabakiko da. Aurten, hamahirugarren edizioa beteko du lehiaketak.

Ortziralean 11:00etatik 13:30era epaimahaikoek ekarritako ahariak aztertuko dituzte, ondotik sariak banatzeko. Sei sari banatuko dituzte: hiru ahari mutur gorriendako eta hiru mutur beltzendako. Kategoria bakoitzean lehen-dabiziko saria eskuratzen dutenek 120na euro irabaziko dituzte, bigarren saria lortzen dutenek 70na euro eta hirugarren saria irabazten dutenek 50na. 2019ko azken edizioan zortzi ahari bertzerik ez ziren aurkeztu. Halere, bertzelako aziendak ere aurkeztu izan dituzte plazara Martin anaiek eta Mikel Mendiburuk.

Lehiaketa honetaz gain, azken urtetan bezala, 10:00etatik 14:00etara Malerrekako

eskulangileen feria ere egingen da eta beraien produktuak ikusgai eta erosgai izanen dira.

Zehazki, Doneztebeko Jose Luis Olaizolaren grabatuak, Doneztebeko Lourdes Goñiren etxeko goxokiak, Zubietako Joxepa Loiarteren taloak, Urrozko Marimar Torresen kosmetika naturala, Saldiasko Ahinitz Gerrikagoitiaren jantzi-osagarriak, Luis Mari Esarte, Ana Urteaga eta Miguel Etxeberriaren egur-lanak, Larraitz Peralen arropa panpinak, Haizea Belarraren eztria, Haizea Irigoienek kosmetika naturala, Maite Abuinen enkuadernazioak eta Doneztebeko Noelia Ariztiaren eta Eratsungo Malu Alvarezen zilar-lanak plazaratuko dituzte, bertzeak bertze.

Arratsaldean ospakizunekin segitu nahi du udalak eta San Migel eskolako guraso elkartearekin elkarlanean eskolarako bide seguruen ibilbideak erakusteko kalejira egingen dute 16:30ean. Kalejira eskolan akituko dute eta bertan txokolata banatuko dute eta haurrendako jokoak eta musika izanen dituzte.



GAZTE BURRUNBA

Gazte Burrunba Eguna arrakastatsua

Gazte Burrunba Eguna ederra izan zen apirilaren 23an. Eguerdiko txupinazoa eta hamaiketakoaren ondotik, gazte bazkaria izan zuten Santa Luzia plazan. Arratsaldean bingo musikariak, eta gauean Burrunba Rock kontzertua eta gaupasa Tirri&Teryrekin.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Aste Santuko futbol campusa

Osasunak antolatutako Aste Santuko futbol campusean inguruko herrietako 40 neska eta mutilek hartu dute parte herriko futbol zelaian eta futbolez eta dibertsioz betetako lau egun izan dituzte. Entrenatzaileak Pello Etxamendi, Julen Hernández eta Joel Gil izan dira.

Ekainaren 4ko Errekaren Eguna prestatzen hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 4an ospatuko den Erreka elkartearen eguna prestatzen hasiak dira. Egitarauaren berri hurrengo zenbakian emanen dugu, baina beterranoek jubilenen kontra eskubaloia partida jokatuko dute. Hitzordu hori behar bezala

prestatzeko, nahi duenak seniorrekin batera entrenatzera joateko aukera izanen du. Ortziraletan izanen da entrenamentua, 19:30ean.

Bertzalde, judo eskolako lau ikaslek Aste Santuan Larrabiden egindako kontzentrazioan parte hartu zuten.

Aste Santuan aukera berria izan dute bisitariek Aurtitzen

Urtarriletik irekia dagoen Aurtizko ostatua logelak ere eskaintzen hasia da oporralditik aitzinera

ARKAITZ MINDEGIA

Aurtengo Aste Santuko opor egunetan, gainerako herrietan bezala, gure herrian ere turista ugari ibili dira. Landetxe, jatetxe eta herrietako txokoe-tan ibili dira kanpoko eta eskualdeko jendeak, aunitz gainera. Eguraldi bikaina izan dute lagun, Uraren Bidean lasai ibiltzeko edo mendiza-leagoek Mendauroko trinitate-ra igotzeko, horiek izan baitira bisitarien planarik arrakastatsuenak.



Aurtizko hostaleko logela batzuk.

Aurtizko aterpea ireki dute

Urtarrileko lehen egunetan ireki zituen Aurtizko ostatuak bere ateak. Geroztik, gainera, jende ugari ibiltzen da bertan astez eta asteburuetan. Hala ere, oraindik bertako aterpea irekitzekoa zegoen. Buru-belarri aritu dira Joxerra eta Eva gelaz gela azken ukituak ematen, gerturatuko direnen gozagarri izateko. Aste Santuan lehen bezeroak sartu ziren eta gustura egon ziren, goxotasunean noski. Poliki-poliki bere martxa hartuko du gaineko soilaruak ere, gela ederretan

atsedenaldia hartu ondotik, ostatuan ederki indarberritzeko aukera baitago.

Moda desfilea Tresanean

Aitzinera begira, ekainaren 5ean moda desfilea antolatzen ari dira Tresaneko apartamentuetan. Iruñeko moda eskolako ikasleak etortzekoak omen dira eta 28 lagunek desfilatuko dute. Hurrengo zenbakian emanen dugu informazio zehatzagoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango pilota txapelketan garaile

Baztango pilota txapelketan txapelkun suertatu dira herriko pilotariak. Umeak B mailan, Beñat Perurena eta Eneko Apeztegiak 18-4 irabazi zieten Irurritako Jokin Ripa eta Aierrutiarri. Kimuak A mailan, Mattin Leiza eta Mikel Ezkurak 18-10 irabazi zieten Xabier Alberdi eta Izei Aierberi.



Malerrekako erronkan ttikiak ere

Ados pilota enpresak eta Malerrekako Oinarrizko gizarteko zerbitzuen artean antolatutako Malerrekako Erronka pilota txapelketa jokatzeko ari dira asteotan. Profesionalen aitzinetik, astez aste Aurtizko frontoian entrenatzen duten herriko neska gazteek lagunarteko partidak jokatzeko dituzte.

EDERKI

tailerra

CITRÖEN

CITRÖEN

ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa

PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

ORBELA

BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel

Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN

info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com

744 484 361

ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPA

SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa



Ekaitza taldeko pilotariak (gorriz) Donamariako jardunaldian. ADOS PILOTA

Malerrekako erronka eta museoen eguna bat eginik

Maiatzaren 15ean egingen den pilota jardunaldiaren inguruan errotako sarrera doan izanen da eta talo-jatea egingen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Malerrekako erronkako hasierako ligaxkak seigarren eta hondarreko jardunaldia jokatuko dute maiatzaren 15ean, igandean 12:00etan Zubietako pilota plazan. Ekaitza eta Axkin izanen dira aurrez aurre. Ekaitza taldearekin inguruko pilotariak ariko dira: amaren abizenaren soinean dutela konpetitzen ari diren Naroa Elizalde Etxekolonea zubietarra eta Leitzako Iera Agirre Iturriaga beterranak eta aita zubietarra duen Ane Mendiburu gaztetxea. Axkin taldean, berriz, Orbegoza, Ruiz de Infante eta berriki Bizkaiko txapeldun izan den Naroa Agirre ariko dira, talde polita eta orekatua, hau ere.

Ohi bezala, Ados elkarteak Aurtitzen duen pilota eskolan aritzen diren inguruko neska ttikiek jokatuko dute profesionalen aurretik eta orain arte jokatu diren jaialdi guztietan animazio haundia sortzen da pilota plazan inguruan.

«Aukera polita»

Naroa Elizalde Etxekolonea pilotari zubietarrak apirilaren

7an Donezteben egindako aurkezpenen bereziki eskerrak eman nahi izan zizkion Malerrekako Mankomunitateari Ados pilota elkarte kontuan hartu izanagatik horrelako txapelketa baterako. «Emakume pilotari profesionalen lehenbiziko elkarteak da Ados pilota eta guretzat inportantea da hemen partidak jokatzea, gure inguru hau pilotazalea da eta partidak bertan jokatze eta ikusteko aukera polita da».

Zubietako jardunaldiaren ondotik erabakiko da maiatzaren 22an Sunbillan jokatuko den finalean zein bi talde ariko diren.

Errotako sarrera doan eta talo-jatea

Pilota jaialdiaren inguruan, hilaren 18an Museoen Nazioarteko eguna dela baliatuz, igande eguerdia eta arratsaldea borobiltzeko ekitalditxoak presatzen du udalak. Ekomuseoa ere baden Zubietako errotako sarrera doan utziko dute eta ondotik talo-jatea egingen dute pilota plazan, pilota partidaren ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Manex Ormazabal Liverpoolen ingeniari

Manex Ormazabal 2020ko udazkenean joan zen Liverpool Hope Universityn robotikako ingeneritzako gradua egitera. Ohorezko matrikula lortuta, ikerketa teknikari lanean ari da partikulen fisikako arloan. Suitzako CERN-en partikula-azeleragailuarendako detektore baten eraikuntzan ari da orain.

Anai-arrebek bataioa eta lehen jaunartzea egun berean

Bitxikeria bezala, aipatzekoa da bi anai-arrebek lehen jaunartzea eta bataioa egingen dutela egun berean, maiatzaren 14an. Nahikari Elizalde Mariezkurrena bataiatuko dute eta Enaitz Elizalde Mariezkurrenak lehen jaunartzea egingen du. Beste aldetik, erlijio kontuekin segituz eta aspaldiko urteetako ohitura-rieutsiz, maiatzeko aingeruak hasiak dira maiatzeko igan-detako elizkizunetan mezan laguntzen, amabirjinari lore eskaintza egiten eta kantuak abesten.

Eskulan tailerra Mikelperizenaren eskutik

Pazko astean haurrentzako, eta orain, helduentzako eskulan tailerra antolatu dute Zubietan. Maiatzaren 7an, 14an eta 21ean eta ekainaren 4an (maiatzaren 28an Malerrekako Eguna ospatuko baita Donamarian), izanen da, eta egun bakoitzean bi orduz elkartuko dira eskolan, 10:30ean hasi eta 12:30ak arte Iciar Mikelperizena gidari dutela. 12 urtetik gorakoentzako zuzendua dago ikastaroa, eta 20 euroko prezioa du. Maiatzaren 2an akitu zen izena emateko epea.

Murrizketarik gabe hasi da Leurtzako urtegiko denboraldia

laz bezala, Mari Jose Zozaia, Marga Murillo eta Mari Jose Arburua ari dira lanean eremua zaintzen

JAIONE ARIZTEGI URROZ

Azken bi urteetan ez bezala, murrizketarik gabe eman diote hasiera 2022ko Leurtzako denboraldiari. Beti bezala, Aste Santuan hasi eta urri hondarrrera arte egonen da zerbitzua martxan. Garai guzti honetan hiru langile arituko dira bertako zereginetan; Mari Jose Zozaia, Marga Murillo eta Mari Jose Arburua izanen dira garbiketa egiten, eremua zaintzen, datozen bisitarietara harrera egiten eta baita auto bakoitzari ordaintzea dagozkion 3 euroak kobratzen ere arituko direnak. Hiru hauek, aurreko urtean lanean aritutako berak dira.

Dirulaguntza

Azkeneko urtetan bezala, naturaguneen erabilera publiko jasangarria sustatzeko Nafarroako Gobernuak Landa ga-



Leurtzako urtegia.

rapenerako eta Ingurumene-ko departamentuak toki erakundeei ematen zaaien dirulaguntza eskuratu ahal izan du Urrozko udalak. Dirulaguntza hau Leurtza bezalako naturaguneetako erabilera publiko modu egokian kudeatu, zaindu eta antolaketa bideratzeko eta bisitarien ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa egiteko behar diren langileen soldatei aurre egiteko izaten dira.



ARANTXA ITURRALDE

Gaztain ximelak Beintza-Labaienen

Ostegun Santuko arratsaldean, Beintza-Labaiengo haurrak herriko karriketan barrena ibili ziren *Gaztain Ximelak* eskean. Aitzinako bertso bat abesten duten bitartean, etxez etxe joaten dira, eta bertan, garai bateko gaztainen orde, goxokiak botatzen zaizkie orain.

Malerrekako Erronkako jardunaldia ortziralean Urrozen

JAIONE ARIZTEGI URROZ

Ados pilota elkarteren eskutik, Malerrekako erronkako azkenaurreko jardunaldiaren lekuko izanen da Urrozko frontoia maiatzaren 6an. Profesionalen arteko bi partida izanen dira, binaka 22 tantora eta lau eta erdiaren barrenean 18 tantora. Gainera, profesionalen aitzinetik, inguruko pilotari gaztetxoak jokoan ikusteko aukera ere izanen da.

Hitzordua ortziralean 19:00etan izanen da herriko frontoian, eta bertan jokatu duten bi taldeak hauek izanen dira: Mendaurre (Arrieta, Osés eta Mujika) eta Axkin (Orbegozo, Ruiz de Infante eta Naroa Agirre).

Urrozko ortziraleko jardunaldiaren ondoren, Zubietan jokatu dute ligaxkako azken jardunaldia maiatzaren 15ean eta orduan erabakiko da maiatzaren 22an Sunbilla jokatu diren finaletan zein talde izanen diren.

Donamariako bentak Bib Gourmand Michelin saria berriz

Donamariako Benta jatetxeak Bib Gourmand Michelin saria lortu du berriz ere. Bib Gourmand zerrendan, preziorik hoberenean sukaldaritza onena eskaintzen duten jatetxeak daude. Bosgarren urtez segidan, jatetxe hau onenen artean nabarmendu dute. Lorea Luzuriagak dioenez, «zerrendan egoteak, profesionalak izatea eskatzen du, langile finak, baina aldi berean, prezioekin lehiatu behar dugu. Sukaldaritza onena prezio hoberenean eskaintzea da zerrenda honetako jatetxeen funtsa».



Lorea Luzuriaga.



JAIONE ARIZTEGI

Urrozko neska-mutikoak saltoka Iruñean

Aitzinetik egindako ekintzetan bildutako diruarekin apirilaren 19an Urrozko haur kuadrilla handi bat Iruñeko Salting-era joan zen arratsaldea pasatzera. Ordu pare bat saltoka eman ondoren, berendua egin zuten eguna borobiltzeko. Gurasoak lagun, kontent itzuli ziren etxera.



Eguraldi txarra dela eta, bidea aldatu behar izan zuten. P. IRASTORTZA



Mendizaleak Gaztelun barrena apirileko irteeran. P. IRASTORTZA

Sasoiko jarraitzen dute elkarteko mendizaleek

Apirilaren 19an egin zuten mendizaleek azken irteera Baztanen, Malerrekan eta Bertizaranan barrena

P.IRASTORTZA

Zuzen eta tinko jarraitzen dute mendia maitatzen eta mendiaz gozatzen Arkupeak elkarteko mendizaleek. Covid-19a dela eta, hilabete batzuz ezin elkartuz ibili ondotik, iazko ekainean ekin zioten berriz hilabeteroko irteera egiteari Arizkun.

Geroztik, bi hilabetetan izan ezik, hilero elkartu dira mendira joateko, azkenekoz apirilaren 19an. Oronoz-Mugairin egin zuten zita, eta Bertizko jauregi inguruan abiatu zuten txangoa. Eguraldi txarra dela eta, azken orduan aldatu behar izan zuten ibilbidea, eta elkartutako 42

mendizaleek bide berria inprobisatu behar izan zuten. Denera 16 kilometro egin zituzten, eta lau orduz ibili ziren ondorengo ibilbidean: Bertizko aparkalekua, NARBART, Doneztebe, Askarraga, Gaztelu, Legasa, Erreparatzea, eta berriz ere Bertizera buelta. Ondotik, Oronoz-Mugairiko Urgain jatetxean bazkaldu zuten mendizale denek giro ederrean.

Mendizaleak gogotsu

Mendiari dioten maitasuna, grina eta errespetua erakusten dute elkarteko mendizaleek egiten duten irteera bakoitzean. Izan ere, nola konprenitu bertzelaren Donezteben urtarrian egindako

mendi irteeran 48 lagun elkartu izana zerez azpiko bi gradu zituztela? Aitzineko egunetan leku guztietan eguraldi iragarpena txarra izanagatik ez zuten mendizaleek hutsik egin hilabeteroko hitzordura.

Arrazoi tinkoz jositako mendizale bati entzuna da, eta ez dirudi uste makala: «Naturaren, mendiaren, eta ingurugiroaren maitale naizenez, barkaezina litzateke nire aldetik hotz, bero, haize, edo euri pixka bat oztopo bilakatzeari, hainbertze maite dudana hortaz disfrutatzeke eta txunditzeke». Bejondeizuela mendizale guztiei eta jarraitu zoriontsu bide berberetik mendiak igotzen!



P. IRASTORTZA

Elbetera joan da apirileko saria

Lehiakide mordoak asmatu du Ainhoa, Sara, Zugarramurdi eta Sarak osatzen duten eskualdeak Xareta izena duela. Denera urtean zozketa egin ondotik, Mari Jose Zalduari egokitu zaio saskia. **Maiatzeko galdera: Zein izenez da ezaguna Leitzako pilotalekua?** Erantzunak: 618 56 78 37.

Banka digitalari buruzko ikastaroak antolatu ditu elkarteak

P.IRASTORTZA

Gaur egungo bizitzaren baldintzek ala bultzatuta, geroz eta maizago eskatzen digute teknologia berrien ezagutza eta erabilera. Nahiz eta arrotza iruditu, sekula ez da berandu horrelako ikasteko. Elkarteak debalde diren ikastaroak antolatu ditu Beran, Donezteben, Elizondon eta Leitzan Rural Kutxaren Ruralvia online aplikazioa eta kutxazainak nola ibiltzen diren ikasteko.

Apirilean hasi ziren ikastaroak Berako Beralandetan egin zuten lehen saioarekin, eta

ondotik eginen dira gainontzeko herrietan, denetan 16:00etan hasi eta 19:00ak arte.

Lerro hauen bidez bazkideak animatu nahi ditugu ikastaroaren berri emateko beren lagun, familiarteko eta etxekoiei. Ez dezagun aiantzi arras interesgarria dela banketxeekin sortzen zaizkigun harremanetarako jakintza hauek izatea. Ikastaroetarako izen ematea 948 450 878 zenbakian eta 618 567 837 zenbakietan egin behar da 09:00etatik 13:00etara, astelehenetik ortziralerara.

2022

*Udaberri
udako*

MODA GEHIGARRIA

Hemen dira udaberria eta eguraldi ona, gure itxura berritzeko une paregabea. Batzuentzako armairuko arropak ateratzeko momentua da, berteentzako, berriz, erosketak egitera joateko aitzakia. Erabateko aldaketa bilatzen baduzu edo bertzerik gabe zure irudiari freskotasuna eman nahi badiozu, garrantzitsua da azken joeren berri izatea. Modan dauden jantzi, oinetako, estilo eta orrazkerak ezagutu nahi?



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709

www.beolaetxea.com 



Udaberri-udaka
MODA BERRIA
DAGOENeko ZURE ESKURA

OSAGARRI, BITXI, POLTSA
eta OINETAKOETAN
aukera zabala

LURRINGEGIAN
sekulako
eskaintzak!!

HAURREN ARROPA
5-16 urte bitarteko
neurriak

Vilanova
accessories

TIFFOSI KIDS

TIFFOSI

BRAVE SOUL
LONDON

BLEND

Udarako prest

Kolore biziak eta gona motzak

Armairutik arropa motza ateratzeko garaia da. Koloreak, askatasuna eta erosotasuna bilatuko ditugu, joan diren urteetako joerak berreskuratuz. Aurtengo kolorea *very peri* bioleta izanen da, urdinaren eta gorri morexkaren arteko nahasketa. Energiaz betetako kolorea da, txuriarekin edo beltzarekin konbinatzeko aproposa. Arrosa bertze kolore garrantzitsu bat izanen da, tonu bizienetik pastel-arrosa argienera, bakoitzak edertzen duen tonalitatea bilatuko du. Kolore dotorea da, eta norberaren estiloa indartu dezake osagarri egokiak erabiliz.

Arropa gardenak eta tula aunitz erabiliko dira, batez ere soinekoetan, eta minigonak ere modan egonen dira, *midí* gonari agur erranez. Freskotasuna ematen dute eta gorputza nahi denean eta nahi den erara erakus daitekeela aldarrikatzen dute. Honez gain, joan den udazkeneko joerekin segituz litsak gailenduko dira jake, soineko, ator eta gonetan, baita osagarrietan ere. Uda-ren askatasunak eta litsen mugimenduak ederki egiten dute bat.

Estanpatuei dagokienez, urteko garai honetan marrazkatsuenak izan ohi dira, eta jantzi marrazkatsuenak aunitz erabiliko dira aurtengoan, baina berritasun batekin; horizontalen ordez, bertikalak. Honek gorpuzkera estilizatzen duen efektu bisuala sortzen du. Soineko eta blusa marrazkatsuenak izanen dira denboraldi honetan. *Total look* joerak ere modan segituko du, hau da, estanpatu berdina duten jantziak konbinatzea. Animalien estanpatuak eta laranja edo arrosa bezalako kolore biziak izanen dira nagusi.


Oinetako eroso eta informalak jaun eta jabe

90eko hamarkadara bueltatuz, kalotxak paregabeak dira udaberriarako. Hankak beti hotzak dituztenek galterdiekin jantzi ditzakete, eta ausarteneak deusgabe erabili ditzakete. Oinetako erosoak dira, mota guzietako diseinu eta takoeikin, konbinatzeko errazak.

Udan, berriz, plataformadun oinetakoak izanen dira aurtengo izarrak. Aukera klasikoena takoi lodiko zapatak dira, aitzinaldean plataformak dituztenak. Hala ere, sandaliek, kalotxek eta mokasinek ere plataformak izanen dituzte, freskotasuna eta berrikuntza bilatzen dutenentzako aproposak. Aukerak anitzak dira, baina emaitzak beti berdintsuak; oinetako erosoak, dotoreak eta edertzen laguntzen dutenak.

Arroparekin bezala, kolore biziak oinetakoetan ere gailenduko dira; fuksia, berdea, horia eta laranja, adibidez. Sandalietan ikusiko ditugu batez ere, oinetako informal eta askeak baitira, freskotasuna ematen dutenak eta beroari aurre egiteko aproposak direnak. Dantzari-oinetakoak modan egonen dira berriz ere, kolore biziek eta estanpatu ausartekin.





Zatoz Venta Peiora gure moda ezagutzera

ADIDAS · AMERICAN TOURISTER · ARMANI EXCHANGE · BENETI · BELLOSTAMORILLAS · BIRKENSTOCK · BOBOLI · BIK · CALVIN KLEIN · CAPTAIN CORSAIRE · CHAMPION · CLARKS · COLUMBIA · CONVERSE · CORNEL TAPIOCCA · DELSEY · DESIGNAL · DOCKERS · EASTPAK · ECOALF · ELLESSE · ELEMENTERRE · EL PULPO · EMPORIO ARMANI · ESPRIT · FILA · FJÄLL RÄVEN · FLUCHOS · GORE · G-STAR RAW · HACKETT · HAPPY SOCKS · HUGO BOSS · HILFINGER DENIM · HELLY HANSEN · I.CODI · IKKS · IPANEMA · JACK & JONES · JOMA · KANGAROO · KAPORAL · LACOSTE · LACOSTE LIVE · LAURA AZARA · LE TEMPS DES CERISES · LES TROPEZIENNES · LEE · LEGO WEAR · LEVI'S · LEVI'S KIDS · LEYLAND · LOLLOPOPS · MANGO · MANGO KIDS · MERRELL · MILLET · NAME IT · NAFAPURI · NEW BALANCE · NEW ERA · ODO · OODS · ONLY · ONLY & SONS · OXBOW · PEPE JEANS · PROMISE · JACK & JONES · RALPH LAUREN · REEBOK · RIP CURL · SAMSONITE · SELECTED · SKECHERS · SUPERDRY · TAMARIS · TBS · TEVA · THE NORTH FACE · TIMBERLAND · TONY HILFINGER · TRESPASS · TRANGO WORLD · UMBRO · UNDER ARMOUR · VANS · VERO MODA · VICTORIA · VILA · WRANGLER · YOKONO

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | +33 972 10 40 20 (fr)

Arnegui | Danbarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibañeta



Sinpletasunean dotorezia haurrentzako

Orain ekitaldiak, ospakizunak eta bestak berriz ere egiten hasi garela, garrantzitsua da okasio bakoitzera-ko prestatuak egotea, baita haurrak ere. Adibidez, urtebetetze baterako arropa informal eta eroso bilatuko dugu, haurrak gustura jostatzeko. Ezkontzetarako, berriz, soineko lore-dun sinple, fresko, koloretsu eta argiak nabarmenduko dira batez ere. Dotoretasuna emateko xehetasun txikiak erabiliko dira; pargailak eta begiztak, bertzeak bertze. Gastatu efektua, *cargo* galtza motzak edota bake-roak ere modan egonen dira, arras landuak ez diruditen konjuntio informalek. Gaztetxoentzako ere kolore biziak eta estanpatu deigarriak gailenduko dira, udaren alaitasun eta freskotasuna irudikatzen dutenak.



Erosotasuna bilatzen denez, zapatilak eta kirol-oinetakoak nagusituko dira, haurrek arazorik gabe korrika eta salto egin dezaten. Sandaliak eta oinetako irekiak ere ezinbertzekoak izanen dira udan erabiltzeko. Puntan eta orpoan errefortzua edukitzea garrantzitsua da, hanka babesteko eta segurtasuna emateko. Elegantzia bilatzen dugunean, mokasinak edo dantzari-oinetakoak aukera ederra dira; erosoak, freskoak, dotoreak eta koloretsuak.

'Bob' orrazkera nagusi bertze behin

Itxura aldaketa bat bilatzen badugu, orrazkera desberdin batek freskotasuna eman diezaioke gure irudiari. Aurtengo joeren artean, joan den urteko *bob* estiloko orrazkera dugu nagusi, baina ile luzeagoarekin gibeletik eta motzagoa aitzinetik. Aldaketa erradikala bilatzen dutenentzako, ilea masail-zurreraino moztea aukera ona da, ukitu informal eta garaikidea ematen baitu. 70eko hamarkada erreferentziatzat hartzen dutenek, berriz, ilea soin-buruetaraino utz dezakete. Ileanen luzerarekin, formarekin eta bolumenarekin jolasten era guzietako emaitzak lor ditzake *bob* orrazkerak. Gainera aurpegia markoztatzen du eta forma ematen dio, ezkutatu nahi duguna estaliz eta bistan uzten duguna nabarmenduz. Guzti horretaz baliatuta, norberarentzako orrazkera perfektua lor dezakegu.

Estetika naturala edo landua, zure aukera

Makillajeari dagokionez, batzuk *no makeup makeup* lookaren alde egin dute apustu aurrean, hau da, itxura naturalekoa, makillajerik gabekoa dirudiena. Horretarako, aski dira oinarria, errimela eta ezpainentzako hidratatzailea.

Bertze batzuk, ordea, makillaje landuago baten alde eginen dute. Kezkatutako begiradaren teknika aunitz erabiliko da; begi-itzala begien inguruan lausotzean datza eta ukitu misteriotsua emanen dio begiradari. Askatasuna bilatzen dutenentzako kolore biziko begiradak modan egonen dira; urdina, arrosa, berdea, laranja, horia... zenbat eta biziago, hobe. Koloreak konbinatu daitezke, betazeletik hasita eta goitirantz lausotuz. Akitzeko, ezpainetako gorria aproposa da edozein estilori azken ukitua emateko, klasiko bat.



LARUNBAT
ARRATSALEDETAN
IREKIA

10
URTE
1922-2022

Virgilio
-1922-
CALZADOS OINETAKOAK

Santiago 36
21700 Elizondo (P)
948 580 209
www.calzadovirgilio.com

100 urte
años
1922-2022

KR
IS

948 580 025
Gilbaurdi, 14
ELIZONDO

Estetika-zentroa

Zuri
Edertasuna eta teknologia

Presta zaitez
udarako!

• Santiago, 59 behea, Elizondo •
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81

UDABERRIKO PROMOZIOA MODAN



Hurbildu zaitetz gure dendetara kupoi honekin eta gozatu deskontuaz **malatzaren 5etik ekainaren 5era**.



% 20ko DESKONTUA

Udaberri-Uda arropa bilduman

Eskaintza hau ez da beste deskontuekin bateragarria.

BIOK[★]
FASHION

ventabiok.com

Mingaño Saltsan bertso sariketa martxan

Ateaberts bertso eskolak bertso afari sariketa antolatuta du eta finala maiatzaren 27an Leitzaan egingen dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hainbat txokotako eta belaunalditako hemezortzi bertsolari bilduz, Mingaño Saltsan bertso afari sariketa antolatuta du Ateaberts bertso eskolak. Apirilaren 29an hastekoa zuen ibilbidea Uitzin eta asteburu honetan Berastegiko aretoan emanen diote segida. Hiru finalaurrekoren ondoren, hilabete bukaeran jokatu den finalarekin borbiduko dute sariketa.

Hemezortzi bertsolari eta hiru finalaurreko

Beteranoak eta gazteak, plazan dabilzanak edo erdi utzita dutenak... Hainbat estilotako hemezortzi bertsolariarekin osatu dute sariketa. Horietatik sei apirilaren 29an Uitzin egitekoa zuten aurreneko finalaurrekoan aritzekoak ziren: Eneko Lazkoz, Iñigo Gorostazu *Etxorde*, Jone Uria, Paul Loizaga, Xabier Legarreta *Arano* eta Ander Fuentes *Iturri*.

Bigarren finalaurrekoa ostiral honetan, maiatzaren 6an, Berastegiko aretoan izanen

da, 21:00etan. Josu Sanjurjo, Asier Azpiroz, Sarai Robles, Maddi Ane Txoperena, Jexux Mari Irazu eta Beñat Iguaran ariko dira bertsotan.

Hirugarren eta azken finalaurrekoa Aranon egingen dute. Aitor Etxebarriazarraga, Oihana Bartra, Ekhiñe Zapiain, Joanes Illarregi, Iban Urdangarin eta Eneritz Artetxe izanen dira bertsolariak. Saioa Aranoko elkartearen izanena da, 21:00etan.

Hiru finalaurrekoren ondoren, final haundia maiatzaren 27an herrian egingen dute: 21:00etan Torrea tabernan.

Bertso saioa eta afaria

Afariaren bueltan antolatutako sariketa da, bertsoaz gozatzetik haratago ongi pasatzeko helburua baitu.

Afarirako txartelak Maimuraren eta saioa egingen den herrietan jarri dituzte salgai. Berastegiko sarrerak, adibidez, Ategi tabernan ere salduko dituzte eta Aranoko saiorako sarrerak Aranoko ostatuan. Bi hitzorduetarako sarrerak 25 eurotan daude.

Egur loteen eskaera maiatzaren 13ra arte

Egur loteak eskatzeko deialdia egin du udalak, eta nahi dutenek 948 01 20 12ra deitu beharko dute. Maiatzaren 13ko 13:00 arte izanen da aukera. Lotearen truke 50 euro ordaindu behar da, baina egun bateko auzolana eginez dirua berreskura daiteke.



Duela zenbait urte plaza dantzak ikasten ibili zirenak. MIKEL LASARTEK UTZITAKOA

Plaza dantzak ikasteko hitzordu gehiago maiatzan eta ekainean

TTIPI-TTAPA

Plaza dantzak ikasteko inoiz ez delako berandu, adinez nagusiak direnentzako ikastaroa antolatuta du Aurrera elkarteak.

Gisa honetara, duela urte batzuk egindako bideari segida eman nahi diote eta apirilean, maiatzan eta ekainean hitzordu bana antolatuta dute, 19:30etik 21:00etara.

Aurreko edizioetan izan den irakasle berak hartu du ardurara: Iruñeko Ortzadar dantza taldeko kidea den Mikel Lasarte larraundarrak. Kontatu duenez, «2007an hasi nintzen plaza dantzak erakusten», eta Aurrera dantza taldearekin «aspalditik dugu harremana». Hortik ailegatu zitzaion gonbita: «2014an edo 2015ean Aurrerako Joseba Sagastibeltsak Leitzaan helduentzako dantza ikastaroa egitea proposatu zidan». Esan eta egin. «Betiko fandagoaz, arin-arinaz eta zortzikoaz gain, ohikoak bihurtu diren beste hainbat plaza dantza erakusten hasi ginen». Bere hitzetan, «garai batean Euskal Herriko zati jakin batean ohikoak ziren dantza jauziak asko zabaldu dira beste tokietara, fisikoki edozeinek dantzatzeko ahal dituelako, eta dibertigarriak direlako».

Aldi hartan, hiru urtez aritu ziren Leitzaan, astero bi orduko saioak eginez. Gero, «lan

kontuak zirela eta, ezin izan nuen jarraitu». Baina aurten «denbora izanen dudalako» berriz egin diote proposamena eta halaxe hasi dira.

Apirilaren 20an egin zuten aurreneko saioa, eta «oso ongi» aterata dio Lasartek: «20 eta 70 urte bitarteko herritarrek hurbildu ziren, batzuk lehen ibilitakoak, baina gehienak aurrekoetan etorri gabekoak. Gehienak neskak hurbildu ziren, eta mutil bakarra. Oinarrizko erritmoak eta dantza errazak ikasi genituen, baina egia esan, nahiko azkar aritu ginen».

Oraingoz hiru hilabetez hiru hitzordu, gerora astero

Oraingoz hiru hitzordu antolatuta dituzte eta hurrengoak maiatzaren 25ean eta ekainaren 22an izanen dira, Amazabal institutuko gimnasioan. Saioak «irekiak» direla eta «edozein» joaten ahal dela nabarmendu du Lasartek. Hiru saio horiek dohainik egingen dituzte, «gure asmoa irailean edo urrian hasiko dugun ikastaroari begira harra piztea da. Orduan astero hasiko gara». «Animatzeko» deia egin die leitzarrei, «ongi etorriak» izanen direla, «gogo kontua besterik ez da dantzatzea. Gure helburua ongi pasatzea da eta bide batez, edozein lekutan ikusten ditugun dantza herrikoiak eta errazak ikastea».

Energia Berriztagarrien Komunitatearen aurkezpena

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko lantaldeak ostiralean, hilaren 6an, aurkezpena egingen du Herri Aretoran, 19:00etan. Esku artean duen aurreneko proiektua udal kiroldegian autokontsumo fotovoltaiko partekatua da.

Haritz Azpiroz munduko First Lego Leaguen nagusi

Legotronic Beavers taldeko kidea da Azpiroz eta Houstonen munduko robotika txapelketa irabazi du taldearekin

TTIPI-TTAPA

Haritz Azpiroz Erbiti herritarak badu pozik egoteko motiborik, mundu mailako First Lego League robotika txapelketa irabazi baitu Legotronic Beavers taldearekin.

14 eta 16 urte bitarteko sei lagunek osatzen dute MTorres fundazioko Legotronic Beavers talde nafarra eta bertako kidea da Azpiroz, ttikitat mundu horretan dabilena. Taldea urrian hasi zen txapelketarako buru-belarri prestatzen eta egindako lanak bere fruituak eman dizkio.

Nafarroako txapelketan lortutako garaipena izan zen aurrena; horren ondoren estatuko mailakora sailkatu ziren; eta hura ere irabazi zuten, apirilaren 20tik 23ra Houstonen (Texas, AEB) jokatu zen munduko txapelketarako txartela lortu zuten.

Azken lehian, 60 herrialde-tako 107 taldek parte hartu zuten eta merkantzien garraioa hobetzean oinarritutako proiektuak puntuaziorik altuena lortu zuen, eta horren bestez, munduko txapelaldun gelditu ziren.



Apirilaren 26an plazan egindako elkarretratzea. UTZITAKOA

Gernikako bonbardaketaren urteurrenean gerrari ez

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 26an 85 urte bete ziren faxistek Gernika bonbardatu zutenetik eta egun horretan «gerraren horrorearen aurkako aldarria berritu» nahi izan zuten Hego Euskal Herriko hainbat txokotan, tartean Leitza. «Burujabetzaren, bakearen eta elkarriketaren alde,

eta gerraren kontra», elkarretratzea egin zuten herriko hainbat eragilek: Lañaidek, ALKE, Aurrera Kultur Elkartea, Gazte Asanblada, LeitzEKO, Enai, Sastrakak, Leitzako Sare Herritarra, LAB Torraspapel, ELA Torraspapel, Torrea, EH-Bildu Leitza eta Sortu Leitza. Manifestua ere sinatu dute

Kultur Aroaren atarian hainbat hitzordu maiatz hasieran

TTIPI-TTAPA

Laburbildum zikloak emanen die hasiera Herri Aretoko maiatzeko kultur hitzorduei. Udalaren, Atekabeltzen eta Sastrakak talde feministak antolatuta, *Zinegoak* izanen da maiatzaren 5ean, 19:00etan.

Igandean, hilaren 8an, Udaltzaren Geuretik Sortuak programako lan bat ikusgai izanen da: Lore More taldearen *Trapu zikinak* antzezlan, 19:00etan.

Maiatzaren 12an ere Geuretik Sortuak-eko beste hitzordu bat izanen da. Garazi Albizuarekin literatur solasaldia, 19:00etan.

Maiatzaren 14an eta 15ean, zazpi urtetik gorakoentzat *Orkestra estralurtarra* eta hamabi urtetik gorakoentzat *Codafilmak* ikusteko aukera izanen da, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

Maiatzaren 19an Nafarroako elikadura burujabetzaz, diagnosiaz eta etorkizunaz solasaldia antolatu du Leitzekok, 19:00etan, eta maiatzaren 22an Jon Maiarekin *Kantu bat gara* ikuskizuna izanen da, 19:00etan.

Maiatzaren 23tik 28ra, bestalde, ALKEk antolatuta, Kultur Aroa hasiko da.



Aurrerako kadeteak denboraldi hasieran. PABLO FEO

Udako futbol txapelketa batean parte hartzeko diru bilketa abiatu du Aurrerak

TTIPI-TTAPA

Osasunaren eta Real Madriden arteko futbol partidarako sarrerak, Oinatz Bengoetxeak sinatutako botila ardoa eta bi txuleta... Bateko eta besteko, dirua biltzeko ekimen ugari jarri ditu martxan azken aste hauetan Aurrera Kirol Elkar-teak.

Kadeteen mailako futbol taldeak Yellow Cup Summer txapelketan parte hartuko du eta gastuei aurre egiteko hasi dira dirua biltzen. Txapelketa udan izanen da: ekainaren 30etik uztailaren 4ra Vila-real-en (Herrialde Katalanak).

Dirua biltzeko kanpaina horren barne, Osasunako, Realeko eta Athleticeko kamiseta bana ere zozketatuko dituzte eta gainera, neurria aukeratzeko ahal izanen da. Parte hartzeko izena eta telefonoa aukeratu-tako zenbakiaren laukian jarri behar dira. Zenbakiak herriko tabernetan daude eskuragarri eta bakoitzaren balioa bi eurokoa da.

Zozketa ekainaren 24an, 19:00etan, egingen dute, Aurrera Kirol Elkartearen egoitzan. Adierazi dutenez, egun horretan telefonoz jakinaraziko diote irabazleari.



Korrikalariak aldapan gora aurreko edizio batean. FELIX LOIARTE

Maiatzaren 21ean izanen da Goizutrail mendi lasterketa

Kirolariek hiru modalitate izanen dituzte aukeran: luzea, laburra eta erreleboka egitekoa

TTIPI-TTAPA

Biurteko geldialdiaren ondoren, bueltan da Goizutrail mendi lasterketa. Maiatzaren 21ean egingen dute eta aurtengoa zazpigarren edizioa izanen da.

Aurreko urteetan bezala, kirolariek hiru modalitate izanen dituzte aukeran: luzea 25 kilometrokoa; motza hamar kilometrokoa eta erreleboka egitekoa hamar eta hamabost kilometrokoa.

Plazan hasiko da lasterketa, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalariak xenda estu batetik. Lau kilometrotan xenda eta pistetatik 680 metrotara dagoen

Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jaitsiko dira Espideko sorotik.

Hamar kilometroko ibilbide motza egin behar dutenek herrian bukatuko dituzte lanak eta bikotekako proba egingen dutenek plazara jaitsitakoan bikotekideari pasako diote erreleboka hurrengo zatia egiteko. Hemendik Mandoegiko gailurrera (1.045m) igoko beharko dute. Ondoren Mandoegiko gailurrean jarraituko du ibilbideak eta bukatzeko plazara jaitsiko dira.

Izen ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus atarian.

Cl@ve sisteman alta eskatzeko aukera udaletxean

Cl@ve sistema gero eta gehiago hedatzen ari den honetan, udalak alta eskatzeko aukera herrian bertan egiteko bidea zabaldu du. Astelehenetik ostiralera egin daiteke udaletxean, 09:00etatik 12:30era. Telefono mugikorra eta helbide elektronikoa behar dira.

Aranolara mendi irteera maiatzaren 14an

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, maiatzaren 14an Aranolara joanen dira Arainburu Mendi Taldeko kideak. Norbaitek joan nahi badu, 08:30ean eginga dute hitzordua herriko plazan. Hamabi bat kilometroko ibilaldia izanen da, gutxi gorabehera lau ordukoa.



ALAITZ ESKUDEROK UTZITAKOAK

Ehiztariak Aranolako zubian auzolanean

Izkina taldeko ehiztarien lanari esker, itxuraberritua gelditu da Aranolako zubia. Palak eta bestelako erremintak hartuta, argazkiko kuadrillak Aste Santuan, joan den apirilaren 15ean, auzolanean berritu zuen erorita zegoen Aranolako zubia.



ANDONI LARRALDEK UTZITAKOAK

Haur eta gaztetxoak kirolean

Guraso elkarteak antolatuta, Anikote kiroldegia hainbat kirolean aritzeko aukera eman zien haur eta gaztetxoei apirilaren 19an eta 21ean. 26 haurrek parte hartu zuten eta saskibaloian, eskubaloian, herri kirolean, patinekin, atletismoan eta gorputz heziketan aritu ziren.



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



GOIO HUALDE ARRIADA
URDAZUBIKO LEZEAK

«Zikindu gabe eta haur eta adinekoekin egiteko pentsatuta dago bisita»

Duela 30 urte Urdazubiko herriak lezeak erosi zituen eta Gobernuaren laguntzarekin «gaur egun ezagutzen dugun ibilbidea egin zuten». Bisita egiteko antolatua dago; «lokatzez bete gabe, haur txikiekin edo adinekoekin sartzeko modukoa. Lezeak nola sortu ziren ikusten da, uraren ibilbidea, errekek egindako zokoak, estalaktitak eta estalagmitak bezalako formazioak...». Gehienez ere 20 pertsonako taldeak egiten dituzte, eta «gomendagarria da alde aurretik

erreserbatzea». Neguan «bertako jendea» joaten da batez ere, baina uda aldera «leku guzietatik hasiko dira; Katalunia, Madril, Andaluzia, Valentzia, Andaluzia... Aste Santu ondoko astean, adibidez, frantses aunitz etortzen dira».



AITOR AZKARATE TOMASSONE
JAUREGIA ESNEKIAK - ANIZ

«Ekoizpen ekologikoa garbiagoa da gure bezero, ingurugiro eta behien ongizaterako»

2004an hasi ziren Aitor eta Mikel Azkarate aniztarak gasnak eta jogurtak egiten, «beti izan ditugu behiak etxean, eta 2010ean esnea saltzeari utzi genion dena guk transformatzeko». Gasna, jogurtak, jogurt irabiatua eta esne pasteurizatua saltzen dituzte, eta ekoizpen ekologikoa- ren zigilua dute; «produktu garbiagoak ekoizten ditugu, hobeak gure bezeroendako, ingurugiroarendako eta gure behien ongizaterako». Jauregia etxaldean bisita gidatuak egiten dituzte bezeroek ekoizpen pro-

zesuaren berri izan dezaten; «esne sektorearen historia eta egoera azaltzen dizkiegu, gure eguneroko lanak eta gasnategiko prozesua erakusten diegu eta dastaketa batekin akitzen dugu bisita. Jendea sektorearen garrantziak ohartzea nahi dugu».



JON PATERNE
EZKEXA - SARA

«Arropen diseinuak euskal kulturen eta pop artean oinarritzen ditugu»

2016an sortu zuten Ezkexa arropa marka Frantzia Usandizaga itsasuarra eta Jon Paterné saratarra. «Usandizaga grafista da eta elkarte eta gaztetxeentzat serigrafia eta kamisetak egiten zituen». Kamisetak eta kirol-jertseak saltzen dituzte gehienbat, «baina eskaerak ikusita, kasketak, galtza motzak, poloak, alkanedorak eta denetarik egiten hasi ginen». Diseinu bereziak egiten dituzte, «euskal kulturen eta musikan, munduko gertakarietan eta pop art-earen oi-

narrituak». Enpresa eta elkar- teen diseinuekin ere jantziak egiten dituzte. Saran dute denda baina 28 salmenta puntu dituzte Euskal Herri osoan eta webgunean ere. Gainera, udan Larhango bentetan bi hilabetez saltzen arituko dira.



JABIER IRIARTE SANSIÑENA
ETXALARKO UDALA

«Herriko turismoa osasuntsu dago eta datuak positiboak dira»

Etxalarko turismoa «osasuntsu» dago, «leku guzietan bezala pandemiak eragina izan du baina osalaritza eta landetxeak berpizten hasi dira». Usategiak eta «herria orokorrean» bisitatzen dituzte turistek; «eliza eta bere lorategiko hilerria, etxeak... Infernuko Errotako bidea ere aunitz gustatzen zaie». Herriko eta eskualdeko informazioa eskaintzen dute turismo bulegoan, eta bisita gidatuak Aste Santuan eta udan. 2021ean 1.000 lagun inguruk bisitatu zuten herria, «datuak

nahiko positiboak dira, pandemia aitzinetik hobeak ziren baina hala ere ongi mantentzen gara». Aste Santuan «hurbileko» jendea izaten dute, baina udan «%95 inguru estatukoak izaten dira, eta gainontzekoak Frantziakoak».



Ekitaldiz betea dator maiatzeko agenda kulturala

Erakusketak, tailerrak, azokak eta bertze hainbertze jarduera izanen dira Baztanen hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Agenda kultural zabala dauka Baztanek maiatzean, era guzietako ekitaldiz betea. Has-teko, *Nafarroako Ostalaritzaren Historia 25 emakumek kontatua* erakusketa ikusgai dago Arizkunenean ekainaren 26ra arte, astelehenetik ortziralera 18:00etatik 21:00etara. Ostalaritzan jarduten duten Nafarroako 25 emakumeren istorioak kontatzen ditu, haien artean Elbeteko Posadako Belen Urrutiarena.

Erakusketekin segituz, J. L. Torralbaren margoak ikusgai egonen dira Arizkunenean maiatzaren 6tik 22ra. Astelehenetik ortziralera 18:00etatik 21:00etara irekiko da, aste-buru eta jaiegunetan, berriz, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara. *Munduko begiak* erakusketa ere Arizkunenean izanen da maiatzaren 23tik ekainaren 12ra.

Kantatzea gustuko dutenek Elbeten izanen dute hitzordua maiatzaren 15ean 12:00etan Baztan Kantuz ekimenarekin. Dantzatzea nahiago dutenek, berriz, bailableak izanen di-

tuzte maiatzaren 8an Elizondoko plazan, Baztango Dantzarien eta Elizondoko gaite-roen eskutik.

Baztango artisauek eta ekoiz-leek azokak egingen dituzte Elizondoko plazan hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 10:00etatik 14:00etara. Gainera, Baztango Artisauek Erratzun izanen dira maiatzaren 15eko goizean.

Mahai-jokoan kutxa ibiltariak bere ibilbidearekin segituko du maiatzean, eta 7an eta 8an Gartzainen izanen da, Kultura Zerbitzuak eta Gartzaingo Herriak antolatua. Gainera, gaztetxoek baratzeako mamuak egiteko tailerra izanen dute maiatzaren 28an Elizondoko plazan 10:00etatik 13:30era. Amaia Zinkunegik eta Ines Gerekak emanen dute ikastaroa dohainik eta izen ematea maiatzaren 20ra arte zabalik egonen da.

Maiatzaren 21ean Paskual Rekalde Irigoien amaiurtarra Euskaltzaindiko euskaltzain oso izendatzearen sarrera so-lasaldia izanen da Amaiurren 12:00etan.



158 bikotek parte hartu dute guztira Udaberriko txapelketan. ZALDUA

Udaberriko pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte apirilaren 24an

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkarteak hogeita ha-maikagarren aldiz antolatu-tako Udaberriko txapelketako finalak apirilaren 24an jokatu zituzten Elizondoko Baztan Udal pilotalekuan eta Irurita-ko pilotalekuan. Urtarrilaren 29an hasi zen txapelketa eta guztira 158 bikotek parte har-tu dute.

Finalen ondotik, Ander Imaz eta Jon Ander Peña pilotari profesionalek banatu zituzten sariak. Txapela eta oroigarriez gain, finaletan aritu ziren pi-lotari gaztetxoek pilota bana opari izan zuten.

Hauek dira Elizondon joka-tutako finalen emaitzak:

Umeak A: Ander Illarduia eta Inar Olano 18 - 4 Oihan Hualde eta Haritza Mauleon.

Kimuak A: Mikel Ezkurra eta Mattin Leiza 18 - 10 Xabier Alberdi eta Izei Aierberi.

Haurrak A: Oier Izagirre eta Iñigo Alberdi 18 - 16 Markel Perez eta Pablo Aldazi.

Kadete A: Bingen Beitia eta Aitor Arrillaga 18 - 16 Iker Iza-girre eta Arkaitz Goienetxe.

Gazteak: Mikel Mikelarena eta Intza Garaño 22 - 12 Oier Zabaleta eta Xabat Olaizi.

Bertze lau finalak Iruritako Aranabia pilotalekuan egin zituzten eta hauek izan ziren jokalariek lortu zituzten emai-tzak:

Umeak B: Beñat Perurena eta Eneko Apeztegia 18 - 4 Jokin Ripa eta Aiert Urrutia.

Kimuak B: Urko Ormazabal eta Imanol Anza 18 - 4 Odei Clavijo eta Iratitz Arsuaga.

Haurrak B: Adam Gomez eta Egoi Bidart 18 - 17 Oier Goñi eta Aimar Gomez.

Kadete B: Nikolas Contreras eta Harriet Etxabe 18 - 5 Beñat Bertiz eta Axel Lasa.

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia
oteizaarquitectos

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Bizikleten salmenta
eta konponketa.
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Errugbia probatzeko jardunaldiak egingen ditu BRTk ortziraletan

TTIPI-TTAPA

Heldu den denboraldiko jokalar berriak aurkitzeko helburuarekin, BRT Menditarrek kluba errugbia probatzeko jardunaldiak egingen ari da. Apirilaren 30ean egin zuten lehenbizikoa, eta maiatzeko lau ortziraletan, hau da, 6an, 13an, 20an eta 27an entrenamenduak eta errugbi 7ko partidilloak egingen dituzte. Publiko guztiarendako irekiak egonen dira jardunaldiak eta probatu nahi duenak 20:00etan Lekarozen izanen du hitzordua.

Taldetik aipatu dutenez, «helburua ongi pasatzea eta errugbia probatzea da» eta 18 urtez beheitikoei, seniorrei, jokalar ohiei eta, batez ere, «kirol hau probatu nahi duen jendeari» irekia da. Kirolarropa eta gogoak eramatea aski da eta entrenamenduaren



Publiko guztiari irekiak egonen dira.

ondotik, hirugarren denbora ere egingen dute.

Errugbiaren gaupasa

Bi urte pasa dira errugbi taldeak gaupasa ospetsua ospatzeko aukerarik gabe. Aurten bai, «ohitura onak berreskuratzeko urte aproposa» delakoan berriz ere besta hau bueltan da. Maiatzaren 21ean izanen da hitzordua Larraintzarren eta BRT taldeak aitzinerago emanen du azalpen gehiago.



AMAIURKO HERRIA

Pilota jaialdia egingen dute maiatzaren 26an Iruritan

TTIPI-TTAPA

Iruritako gazteek pilota jaialdia antolatu dute maiatzaren 26an 17:30ean herriko pilotalekuan. Bi modalitatetan ari tuko dira jokalariek; esku pilotan eta erremontean. Esku pilotan Bengoetxea eta Azanza, Arretxe eta Pascualen kon-

tra arituko dira. Erremontean, berriz, Iturregi eta Urtasun norgehiagoka arituko dira Uterga eta Sagasetaren aurka.

Sarrerak 10 eurotan daude salgai Iruritako Gizarte Bilgunean eta Orbegozo harategian, baita Elizondoko Intza ostatuan ere.

Amaiurko ostatuaren kudeatzaile bila

Amaiurko ostataua eta 40 oheko aterpea kudeatuko duen norbaiten bila ari da Amaiurko Herria. Eskaerak maiatzaren 8ra arte aurkezten ahalko dira eta helburua ekainaren 1ean lanean hastea litzateke. Informazio gehiagorako eskuragarri daude 667 63 36 56 telefonoa eta info@amaiur.eus helbidea.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948638077
---	---	---	---



Apirilaren 23an aurkeztu zuten ekitaldia. NAFARROA BERRIZ ALTXA

Amaiurraldia egingen du Nafarroa Berriz Altxak ekainean

Amaiurko batailaren 500. urteurrena ospatuko du ekimenak ekainaren 5ean Amaiurren eta Elizondon

TTIPI-TTAPA

«Errepublikas aske eta burujabea» aldarrikatuko du Nafarroa Berriz Altxa ekimenak ekainaren 5ean Amaiurren egingen duen ekitaldi politikoan. Amaiurraldia izena paratu diote, eta egun guztirako ekin-tzak antolatu dituzte Amaiurren eta Elizondon.

Apirilaren 23an aurkeztu zuen ekitaldia Nafarroa Berriz Altxak Amaiurren. Amaiurraldia auzolanean antolatu dutela azaldu zuten, Baztango bizilagun eta herri mugimenduekin elkarlanean. Nafarroako eta gainontzeko Euskal

Herriko subiranistendako aldarrikapen eta besta egun bat antolatu nahi izan dute. Erabakiak non eta nork hartzen dituen jakitea «inoiz baino garrantzitsuagoa» dela adierazi zuten; «nafarrek libreki hartzen ez ditugun erabakiek krisiei ematen diegun erantzunak baldintzatzen dituzte».

«URTEMUGA HONEKIN ZIKLO HISTORIKO BAT IXTEN DA»

«Nafarroako subiranista eta independentistendako data hau gure iruditegian gorritz markatuta dago. Amaiurko urtemuga honekin ziklo historiko bat ixten da, 1512ko konkista odoltsu hartatik 9 urtetara, Nafarroako Erreinua berreskuratzeko hirugarren saikerarena».

«500 urte beranduago, katea ez da hautsi eta gero eta gehiago gara otzana den eta huts egin duen Europa honetan berriro ere gure burua gobernatu nahi dugunak. Horregatik, ekainaren 5ean Amaiurko zelaia mezua garbi batekin beteko ditugu. Gure arbasoei egin diezaiekegun omenaldirik onena da errepublikas aske eta burujabe batera eramanez gaituen burujabetza prozesu propio eta herritar baten erakuntza», nabarmendu dute.

Amaiurko ekitaldia

Ekainaren 5ean, igandea, izanen da Amaiurraldia. 11:30ean Amaiurko monolitoan ekitaldi politikoak egingen dute. Ondotik, 12:15ean, oinezko mar-txa egingen dute Amaiurtik Arizkuneraino, eta bertatik Elizondora joanen dira autobusean. Elizondon besta gunea antolatuko dute, eta hainbat ekintza egingen dituzte.

Lehentasuna Amaiurko gune berezia zaintzea dela nabarmendu dute. Horregatik, autobusez joateko deia egin dute. Maiatzaren 5ean izena emateko 30 toki baino gehiago jakinaraziko dituzte.



Gaztetxean izanen dira solasaldiak.

Lan baldintzen inguruko jardunaldiak gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, Baztango Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren lan baldintzen gaia lantzeko. Maiatzaren 1ean LABek deitutako mobilizazioan izan ziren Donezteben, eta 4an Gazteen lan eskubide gida aurkeztu zuten.

Maiatzaren 11n, Baztango Berdintasun Batzordearen eskutik, *Emakume migratuak, bi bider prekarizatuak* kafe tertulia egingen dute 18:00etan gaztetxean. Maiatzaren 18an, berriz, *Zaintza sektoreko langileak borrokan* mahai-inguru izanen da 17:00etan, Benito Menniko, zahar etxeko, osasun etxeko eta haur eskolako langileekin.

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN S.L.
GASTROENBILKETA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

Baztango I. Berdintasun Plana aurkeztu du udalak

Txostena eskuragarri dago osorik Baztango Udalaren webgunean

TTIPI-TTAPA

Baztango Berdintasun Zerbitzuak I. Berdintasun Plana ebaluatu zuen duela hilabete batzuk aitzinera begira dituen erronkak identifikatzeko. Orain, Baztango emazteki* eta gizonen* berdintasunerako I. planaren ebaluazioa aurkeztu du, prozesu horretatik ateratako ondorioak biltzen dituen txostena.

Hainbat eragilek parte hartu dute prozesu honetan; «ordezkari politikoek, udaleko hainbat teknikariek, herriko mugimendu feministak eta hainbat emaztekik». Nekazal guneetako emaztekien eta emakume migratuen partaidetza nabarmendu dute, «bizi duten egoera zailarengatik». Herri batzarrean egindako hausnarketak txertatu dituzte txostenean eta eskerrak eman dizkiete prozesuan parte hartu duten guztiei.

Sei ataletan banatu dute txostena: sarrera, marko arautzailea, metodologia eta emandako urratsak, planaren ebaluazioa, Baztango egungo egoera eta ondorioak. Txosten

osoa *baztan.eus* atarian dago irakurgai.

Planaren «betetze maila eta egokitasuna» aztertu dituzte eta bailarako «gizon eta emakumeen arteko bereizkeriak» identifikatu dituzte. Ondorioa «garbia» da: «Baztanen bada go oraindik emazteki eta gizonen berdintasuna sustatzen segitzeko aukera eta beharra». Nafarroako Berdintasun Legearen arabera, «Baztanek 2022ko akaberarako Berdintasun Plan berri bat izateko betebeharra izanen du».

II. Berdintasun Plana abian

Egindako lanarekin «iragana baloratu eta etorkizunean pentsatzen paratu gara» eta aitzinerat begirako erronkak identifikatzen hasi dira, udalean nahiz Baztango herrietan. Horregatik, «II. Berdintasun Planaren zirriborroa kontrastatzeko tenorea» dela adierazi dute, eta maiatzaren 7an saio irekia egingen dute Arizkunenean, 10:30etik 13:30era, «hurrengo urtetako plangintza estrategikoa kontrastatu eta osatzeko».

Aroztegiko erresistentziaren I. urteurrena ospatuko dute maiatzaren 14an Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Aroztegiko proiektuaren kontrako erresistentziaren lehenbiziko urteurrena ospatzeko, egun osoko egitaraua antolatu du Arozta herri ekimenak maiatzaren 14an Lekarozen. Goizean fanfarrea izanen da herrian, 11:00etan ipuin-kontalaria eta mural margoketa izanen dute. 14:30ean zikiro jatea egingen dute, menu barazkijalearen aukerarekin, eta bertsoa saioa izanen da. 18:00etan kalejira izanen da herriitik barna Kinbonbo Brass Banden eskutik, eta egunari akabera emateko, 22:00etatik aitzinera Leizeak, Burutik, AFU eta DJ Kazeruerk taldeen kontzertuak izanen dira. Afaltzeko bokatak erosteko aukera ere izanen da.

Zikiro jaterako txartelak salgai egonen dira maiatzaren



Aroztegiko manifestazioa 2021ean.

8ra arte Lekarozko Hiru-Iturri ostatuan, Elizondoko Intza eta Txokoton, Arizkungo Do-laetxean eta Erratzuko Zubipuntan. Zikiroaren prezioa 25 eurokoa izanen da, menu barazkijalearena, berriz, 20 eurokoa.

Porrotx Lekarozen

Maiatzaren 11n haurrek Porrotxekin kantatzeko eta jostatzeko aukera izanen dute herrian 17:00etan.

Arizkungo eta Almandozko harrobien tokiak «ez direla egokiak» dio Geroa Baik

TTIPI-TTAPA

Almandozko eta Arizkungo harrobien kontura, Baztango Geroa Baik adierazi du «printzipioz harrobien aurka egon gabe, jarduera hauek burutzeko aukeratu diren tokiak ez direla egokiak» eta orain arte eman dituzten botoak

«herriaren aldarrikapenen aldekoak izan direla».

Erdizko aferari dagokionez, «kontu administratibo konplexua» dela adierazi du taldeak, eta erreferendumaren alde agertu dira, «beti ere lege markoen baitan eta inplikatu guzietan begirunez egiten bada»

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Ernaik Baztanen egindako Gazte Martxako antolatzaileetako bat izan da Xabier Ertze Atxa. UTZITAKOA

«Euskal gazteria zutik eta indartsu dagoela erakutsi dugu»

XABIER ERTZE ATXA BAZTANGO ERNAIKO KIDEA

Ernaik antolatutako euskal gazte independentisten olatuak Baztan astindu du Aste Santuan. Xabier Ertze antolatzaileetako batek aurtengo Gazte Martxaren balorazioa egin dio TTPI-TTAPari.

R. OSKARIZ | ELIZONDO

'500 eta ZUTIK' Gazte Martxa antolatu zuen Ernaik Baztanen apirilaren 14tik 17ra eta Euskal Herriko 3.000 gaztek baino gehiagok parte hartu zuten ekimenean. Zugarramurdi hasi zen martxa, eta Erratzun geldialdia egin ondok, Elizondoraino ailegatu zen. Bertan, gazteek kontzertuak, solasaldiak, mahai-inguruak eta bertzelako ekitaldiak izan zituzten, «euskal gazte indendentistondako elkargune bat sortzeko, elkar saretuz, komunitatea osatuz eta indarrak batuz». Xabier Ertze Atxa elizondorarrak, Baztango Ernai taldeko kide eta Gazte

Martxako antolatzaileetako batek, ekimenaren balorazio positiboa egin du; «gure helburuak guztiz bete ditugu eta euskal gazteria bizirik dagoela erakusteko balio izan digu». Orain, bizitako esperientzia «motibazio bezala» erabiliko dute, «gure herrietan lanean segitzeko Euskal Herri sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna lortu arte». **Noiz sortu zen Baztango Ernai taldea?**

Lehenagotik ere Ernaiko talde bat bazegoen ere, guk taldea birsortu genuen 2018ko abenduan. Gazte Mugimendua berpizteko nahia izan zen, nire ustez, taldea sortzea eraman gintuena, ge-

rora horrek bertze hainbat esparrutan ere gazteen aktibazioa ekarri baitzuen; Gazte Asanbladan, Neska* Gazteen taldean eta bertze hainbertzetan.

Zenbat kidek osatzen duzue taldea?

Orain bertan zazpi lagun gara taldean.

Zergatik erabaki du Ernaik aurtengo Gazte Martxa Baztanen egitea?

Aspalditik bagenekien aurtengo Gazte Martxa Baztanen izanen zela. 2020ko Gazte Martxa Nafarroan izan behar zen, Uxuetik Tafallarat, baina pandemia dela eta hau bertan bera utzi behar izan genuen, baita 2021ekoa ere.

Aurten, Amaiurko batailaren 500. urteurrena gogora ekarri, Gazte Martxa Baztanen egiteko erabakia hartu genuen.

Zein izan da ekimen honen helburu nagusia?

Bi helburu nagusi genituela erranen nuke Gazte Martxa honi begira. Batetik, Euskal Herri osoko gazte independentistondako elkargune bat sortzea, elkar saretu, komunitatea osatu eta indarrak batzeko; eta bertetik, gazte antolakundeak urte askotan zehar ospatu duen udaberriko ekimena bi urteko geldialdiaren ostean berriz ospatzea. Erranen nuke bi helburuak guztiz bete ditugula Gazte Martxa honekin.

Amaiurko batailaren 500. urteurrena gogoan izan duzue ekitaldi nagusian. Zein da zuretako eta euskaldunendako guda horren erranahia?

Amaiurko bataila euskaldunon erresistentziaren ikur nagusia da. Bertan, duela 500 urte, berrehun pertsona bizia emateko prest agertu ziren, nafar askatasunaren alde. Ordutik ere, hainbat eta hainbat izan dira herriaren alde dena emateko prest agertu direnak. Gazteoi herri zahar honen memoriaren lekukoa hartzea dagokigu, gure kontakizun propioa eraikitzeko; nondik gatozen argi izanda bakarrik egiten ahalko dugu aitzinerat.

Zenbat lagunek parte hartu dute ekimenean?

Euskal Herriko txoko guzietatik etorri diren 3.000 gazte baino gehiagok egin dugu bat Baztanen ekimen honekin.

Zer egin duzue egun hauetan Zugarramurdi, Erratzun eta Elizondon?

Eskaintza politikoa zein aisialdi eskaintza eduki ditugu egunotan. Aukera izan dugu, batetik, hausnarketarako eta jakintza kolektibizatzeke, eta bertetik hainbat kontzertuz eta herriko giro onaz gozatzeko.

Kontzertuez gain, mahain-inguru eta tailerrak egin dituzue. Zer landu duzue bertan?

Hitzaldi, tailer eta mahai-inguruetan era guzietako gaiak landu ditugu; Euskal Herriko prozesu independentistaren erronkez aritu gara, borroka feminista eta transmaribiboltoa landu ditugu, mugimendu ekologistari buruz solastatu gara, Europako hainbat prozesu independentista ezagutu ditugu eta bertze hainbat gairen inguruan ikasteko aukera izan dugu.

Zein izan da zuretzako Gazte Martxan bizitako momenturik politena?

Niretzako martxako momenturik hunkigarriena Elizondon larunbatean egindako ekitaldi nagusia izan zen. Bi zatitan egon zen banatua; lehenik poema eder bat irakurri zuen bertako gazte batek, eta gero Ernaiko bozeramaile Ane Alavak hitzartze hunkigarri zein motibagarria egin zuen.

Hala ere, dena ez da ona izan. Eraso sexista eta homofoboak salatu dira egun hauetan, ez?

Zortzi eraso sexista eta homofobo salatu dira martxan zehar, nahiz eta badakigun salatu gabekoak bertze hainbertze izanen direla. Guzti honek erakusten digu Gazte Martxa bezalako espazioak seguruak izatetik arras urrun daudela emakume* zein sexu eta genero disidenteendako. Hala ere, balorean paratu behar da edozein motatako erasoak salatzeke neska* gazteek garatutako mekanismoak, auto-defentsa feminista praktikan jarritz eraso hauei erantzuna emateko gai izan baitziren.

Ekimen handia izan da eta antolakuntza handia eskatu izanendu, ez?

Ehun gazte inguruk hartu dugu parte Gazte Martxaren antolakuntzan eta muntaian zein desmuntaian. Hainbat lantaldean antolatu gara horretarako: egitarau politikoko lantaldea, azpiegitura lantaldea, eskulangileak, sukaldaritza lantaldea, barra lantaldea,



3.000 gazte bako gehiagok parte hartu dute '500 eta ZUTIK' gazte martxan. ERNAI

segurtasun lantaldea, zaintza lantaldea, komunikazio lantaldea... Antolakuntzatik haratago, ehunka lagunek txandak bete dituzte martxa osoan zehar.

Baztango gazteek ere antolakuntzan lagundu dute?

Bai. Txandak antolatzen, txandak betetzen edo bertzelako laguntza eskaintzen, Baztango gazte eta ez hain gazteek aunitz lagundu digute. Arras eskertuak gaude jendeak eskaini digun laguntza guziarekin.

Nolako izan da herritarren harrrera?

Guk dakigunez behintzat, bai Erratzun baita Elizondon ere jendea kontent dago egondako giroarekin. Antolakuntza

aldetik, dena arras ongi antolaturik zegoela komentatu digute.

Akitzeko, Iruñean Aberri Eguna ospatu zenuten...

Ekimena larunbatean akitzen bazen ere, igandean gazteok Aberri Eguna ospatu genuen Iruñean, EH Bilduren manifestazio nazionalen parte hartuz eta horren ondotik hirian antolatutako ekimene-tan egonez.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu euskal gazteriarri?

Nire ustez, Gazte Martxa honek balio izan digu euskal gazteria bizirik dagoela erakusteko, pandemiaren ondotik zutik eta indartsu gaudela erakusteko eta borrokarako grina eta ilusioa berpizteko. Orain, ber-

tan bizitako esperientzia motibazio bezala erabili behar dugu gure herrietan lanean segitzeko, gazteria independentista aktibatuz eta artikulatzeko, eta Euskal Herri sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna helburu izanik, gure eguneroko lan militante-ari inoiz baino gogotsuago ekiteko.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Eskerrak ematea bertzerik ez antolakuntza lanetan ibili diren gazte guziei, laguntza eskaini diguten baztandar guziei eta txanda guzietan ibili diren pertsona guziei, guztion ekarpenari esker atera ahal izan dugulako ekimen hau aitzinerat. Bertzetik ere, eskerrak eman nahi dizkiet Erratzuko eta Elizondoko biztanleei, martxako partaideok gure etxean bagina bezala sentiarazteagatik. Eta azkenik esker-rrak Gazte Martxara etorri diren gazte guziei, Erratzu eta Elizondo hain ongi zaintzeagatik.

«**HERRIAREN
MEMORIAREN
LEKUKOA HARTZEA
GURI DAGOKIGU**»

«**MILITANTZIARI
GOGOTSU EKITEKO
BALIO IZAN DIGU
MARTXAK**»



Gerardo Mungia egilea, Eukene Xurio, Juan Migel Olaizola eta Pantxika Urruty errejenta, aurkezpenean. AITOR AROTZENA

‘Maddiren trajeria’ urriaren 15-16an joko dute leizeetan

Xaretako ehun lagun baino gehiago ari dira lanean pastolaren eta hamabortz egunez behin biltzen dira

TTIPI-TTAPA

Lehen aldikoz pastoralala antolatu dute Xaretan eta urriaren 15ean eta 16an aurkeztuko dute Zugarramurdiko leizeetan. *Maddiren trajeria* pastoralala idatzi du Gerardo Mungia *Pintxek* eta Pantxika Urruty izanen da errejenta. Hain zuzen, duela bortz urte Etxalarko Karmen pastoralala idatzi eta gidatu zuten berberak. Denera, Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko ehun lagun baino gehiago ari dira lanean eta Zugarramurdiko emanaldien ondotik, Saran ere egiteko asmoa dute.

Apirilaren 21ean egin zuten pastoralaren aurkezpena Zugarramurdiko Akelarre elkarrean. Juan Migel Olaizolak aipatu zuenez, «bistan denez, guk ez dugu nehoiz pastoralala egin, eta nahiko fite konturatu ginen lan handia dela eta

jende ainitz behar zela, Zugarramurdin ez ginela jende aski hori antolatzeko. Berehala erabaki genuen Xaretako jendeari irekitzea, jakin gabe segur proiektua aitzinera ateratzerik izanen ote genuen. Baina Pantxika Urrutyk lasaitu gintuen eta aitzinera egin dugu, desafioak maite ditugulako. Lau herrietako jendea biltzen ari gara, maiz elkarrekin proiektuak ez ditugunak eta hau okasio aski ederra da, elkarlanerako». Gu ez gara ez kantariak ezta dantzariak ere, eta pazientzia handia izaten ari dira gurekin».

ZUGARRAMURDIKO EMANALDIEN ONDOTIK SARAN ERE EGINEN DUTE

Eukene Xuriok adierazi zuenez, «proiektu hau aitzinera ateratzeko sosa biltzen ari den jendea ere aipatu behar da, ez baita erraza. Horretan ere ez dugu ohiturarik».

«200 bat berset»

Gerardo Mungia *Pintxek* egileak aipatu zuenez, «guti ezagutzen den istorio bat kontatzen du pastoralak, nahiz eta Pierre Lafittek kondaira hori gogoratzaren zuen bertsioa aurkitu zuen, *Maddi oreina bilakatu neska* izenburuarekin eta Benito Lertxundik kantatu zuen. Egunez orein eta gauetz neskatila den Maddiren istorioa kontatzen du. Etxeko zakurrek oreina hiltzen dute. Hortik abiatzen da nik idatzitako istorioa, nerabetasunetik gartetaserako bidea, ehizaren bi alderdiak, oihaneko piztiak, euskal mitologiako hainbat pertsonaia... horiek dira pastoral honetako sujeta garrantzitsuenak. Gorriak, berriak, Xaretan maleruski aski eza-gunak izan diren inksidoreak, Urdazubiko abadea, Pierre de Lancre, Aymeric Picaud, Valle Alvarado, jaunskilak, iratxoak... pastoralak behar duen gaiztotasuna irudikatuko dute. 9-10 kantore eta 200 bat berset izanen dira».

NIRE USTEZ



JUAN MIGEL
OLAIZOLA ARIZALEA

Xaretako herriak elkarlanean

Aitortu behar da ez genekielan zenbateko lana den pastoralala aitzinera ateratzea. Engaiamendu handia da denendako, hamabortz egunetarik errepikak baditugu, igandetan, eta igande egun osoa hartzen du gehienetan. Denon artean lan handia egiten ari gara. Egileak berak lan handia egin du, leienda bat Xaretako eremuan kokatu baitu, hemengo pertsonaiak sartuz. Kantuak ere ikasi behar ditugu eta irakaslea hamabortzotero etortzea ere eskertu behar dugu, hemen ez baitugu kantu eskolarik eta gehienok ez baitugu notak bereizten.

NIRE USTEZ



PANTXIKA URRUTY
ERREJENTA

Bortz alor oholtzan

Pastoral guztiek bezala, honek ere bortz alor ekarriko ditu oholtza gainera: idatzia, kantua, dantza, musika eta jantziak. Hortaz, bortz arduradun ditu: testuaren idazlana, aipatu bezala, Gerardo Mungia *Pintxek* egin du; musika eramailea Patrick Calvet izanen da, bertze hamar bat musikarirekin; dantza eramailea Arnaud Izal, satan dantzetan berezitua eta dantza sozialen irakaslea, Pierre Goyaren laguntzarekin; kantu eramailea Marylis Daguerre eta jostunen eramailea Beronik Ondikola, hamar bat dendariekin jantzien asmatzeko eta josteko.



Turismoaren masifikazioaren kontrako pintadak agertu dira. MARIFA ETA KORO

6.473 lagunek bisitatu dituzte leizeak Aste Santu honetan

KORO ETA MARIFA

Aurten ere, bisitari aunitz izan ditugu Aste Sainduko egunetan. Hala ere, aurtengo kopurua usaian baino puska bat tikiagoa izan da. Azkeneko urte «arruntarekin» konparatuz (hau da, 2019 urtearekin) % 33 gutiago etorri zaizkigu aurten, hirutik bat guttiago. Leizeetan zenbatu dutenez, ortzegunetik astelehenera, denetara 6.473 lagun sartu ziren (beti bezala, ortziralea izan zen jende gehien mugitu zen eguna). Jende pilatzea saiheste aldera, ordutegia oren erdi bat aitzineratu zen, eta

horretaz gain, sarrera gehienak (% 70) on line saldu ziren, baikoitzari berehitzordua emanez. Horietako aunitz sorginen museoan ere izan ziren eta herriko ostatu eta jatetxeetan mugimendu handia sumatu zen egun horietan.

Turismo masiboaren kontra

Halere, denak ez daude hainbertzeko jendeketaren alde, nonbait. Honela, Ortzegun Santu gunean, *Turismo masiborik ez!* zioten pintadak ere agertu zirela herriko zenbait tokitan, goitiko argazkian ageri den bezala.



MARIFA ETA KORO

Miradore berria leize gainean

Ehun bat metroko miradore berria egin zuten leize gainean joan den urtean, prototipo gisara. Beharrezko lan guztiak burutu ondotik, Aste Sainduan ireki diote publikoari. Infernuko errekaiko zubira ematen duen begiralekua. Arrakasta izan du egunotan eta aunitz gustatu zaie bisitariei.

Goazen 8.0 kontzertua emanen dute hilaren 22an

Olhain ikastolak antolatu du kiroldegian eta jatekoa eta edatekoa ere izanen da bertan

GANEX

Maiatzaren 22an lehen aldikotz Lapurdin, *Goazen* telesaileko aktoreek kontzertua eskainiko dute. Azken urteotan EITBko telesail musikalak arrakasta lortu du Euskal Herri osoan. Musika eta dantza nahasten dituen telesailean euskal erreperitorio klasiko eta modernoak uztartzen dira.

Aurtengo promozioan Joanes Etxebeste herriko semea ari da aktore lanetan. Pontx paila-za ezizenarekin ezagutzen dugun gazteak amets bat bete du eta plazera handiz ongie-toria emanen diote sorterrian. Kontzertua Sarako Olhain ikastolak antolatu du eta 18:00etan hasiko da kiroldegian. Bertan jatekoa eta edatekoa izanen da. Sartzeak hamabi eurotan dira eta urri-rik borts urtez behe-itiko hau-



Kontzertuko afitxa.

rrentzat. Sarrerak Herriko Etxeko edantegian edo web-gunean eros daitezke.

Eskuen lanak

Elkarteak jakinarazi du maiatzaren 7tik 9ra egingen duela bere erakusketa Lur Berri gelan 10:00etatik 18:00etara. Pandemiagatik bi urtez egin ezinik egon ondotik, hama-borts bat lantegi hor izanen dira beren gauza ederrak erakusteko eta saltzeko.



GANEX

200 paella razione Zazpiak Baten alde

Zazpiak Bat dantza taldeak antolatua zuen paella etxerat eramateko apirilaren 24an. Elkartea aski kontent zen emaitzarekin, zeren 200 bat errazio saldu zituzten eta aski ona prestatu zuten gainera. Ekimenean parte hartu duten guztiak eskertu dituzte.

Magoen topaketa egingen dute Trikuharryn

Maiatzaren 14 eta 15eko asteburuan egingen dute eta magia ikuskizunez gain, goizetan magia tailerrak egingen dituzte

ARANTXA ETA IRAIA

Maiatzaren 14an eta 15ean magoen topaketa izanen da herrian eta 18:00etako magia ikuskizunez gain, goizetan magia tailerrak ere izanen dituzte 11:30ean. Hortaz, magiaz gozatzeko aukeraz gain, mundu honetan trebatzeko aukera egonen da. Herriko Javi magoaz gain, Jaime Perla, Ernestwey, Mag Marcus eta Doc magoak ere izanen dira bertan. Aforoamugatua izanen denez honat hurbildu nahi duen guztiak 601 35 13 19 telefonora deitu beharko du lekua hartzeko. Bertze aldetik, apirilaren 23tik 30era arnoaren azoka egin dute Dantxarinako bentetan.

Maddiren Trajeria

Apirilaren 21ean Xaretako herritarrek egindako *Maddiren*



Herriko Javi magoa.

Trajeria pastoralaren aurkezpena egin zuten Zugarramurdin. Bertan, pastoralaren nondik norakoak aurkeztu zituzten hurbildu ziren guziei. Pastorala heldu den urriaren 15 eta 16an egingen da Zugarramurdiko leizean. Aspaldiko partez lau herrien arteko proiektu bateratu bat da pastoral hau, euskaraz osoki sortua eta aitzinera eramana. Herritarrak ere ari dira, arizale eta jostun lanean.

Zugarramurditik Elizondorako bidean gazteak

Ernaik antolatuta, 500 eta zutik! goiburupean Zugarramurditik Elizondora egin zen gazte martxa Urdazubitik ere pasa zen apirilaren 14an eguerdi aldera. Plaza inguruan hainbat gazte bildu ziren, Elizondorako bidean eta giro ederra paratu zuten herrian.



ARANTXA ETA IRAIA



ARANTXA ETA IRAIA

Kontrabandisten lasterketako ibilbidean

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketako antolatzaileek ibilbide berria ezagutzeko aukera eman zieten herritarrei apirilaren 15ean. 22 kilometroko ibilbidea osatu eta Karreteron bazkari batekin borobildu zuten. Egun goxo bat pasatzeko parada izan zuten.



ARANTXA ETA IRAIA

Euriagatik leizeak hetsiak

Bortz eguneko euriteek eragina izan dute Urtxume errekaaren emarian. Hortaz, leizeak bisitarientzat hetsi behar izan zituzten apirilaren 20an, beraien segurtasuna bermatzeko. Errekak gain egin zuenez bertako pasabideak estali zituen eta beraz, ezin izan zen inor pasatu.



JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Herri Urratsen aurkezpena. UTZITAKOA

Bi urte eta gero Herri Urrats aintzirara itzuliko da

Maiatzaren 8an, igandean egingen den ospakizunean bildutako dirua herrian eraikiko den bosgarren kolegiara bideratuko dute

JL BESSONART

Aurten antolatzaileek, lehenbiziko Herri Urratsko irudia ezarri dute zapatarekin logoan, *Itzulera 2022* adieraziz. Bi urtez segidan halako hutsune bat sentitu dugu Senperen, maiatzeko bigarren igandarekin, Herri Urratsen hitzordua hain baitago sartua

herriarren baitan. Zorionez oraingoan izurrite kezkarri hori giblean utzirik, euskararen besta xoragarri hortara hurbiltzen ahalko gara pozez beterik. Aintziraren inguruak milaka kidez estaliko dira, animazio, dantza, kantu eta ostatu ugari eskainiak zaizkigu. Herri Urratsen diru sarre-

rak, beharrezkoa den bosgarren kolegiaren eraikitze proiektura joan dena, gehiago dena aintziratik bi urratsetara eraikia izanen da. Herriko etxeak Seaskari utzi dio lur eremu bat kolegiaren eraikitzeko. Honek errezibi dezake 250 eta 300 ikasle artean.

Lau gunetan banatuta, hainbat adinetako jendearentzako ekitaldiak izanen dira:

Araba gunean: Pauline & Juliete, mutxikoak, Kilimak, Albosax, Xiberoots, Asto Baba eta Trikidantz.

Lapuri gunean: Artxeroak, bertsolariak eta Nat Watson.

Nafarroa gunean: Laparrak, Aho zakil konekxion, Aguxtin Alkhat, Skakeitan, Des-kontrol, Willis Drummond eta Dupla.

Gipuzkoa gunean: Estitxu Robles eta dantzaz, Kautere balet, Herri Urrats kantuz, Wazza Funky family, Topa noka, Dimua dantza kolekti-boa, Tristan Murgi eta Zeze.

Horrez gain, egun osoan animazioa izanen da BBandekin, Zo Zongorekin, Rata-punkekin, joaldunekin eta gaiteroekin.

Haurren txokoak, berri, Araba eta Gipuzkoa guneeetan izanen dira eta bertze hainbat ikusgarri.

2022ko buxetaren kontra bozkatu du oposizioak

JL BESSONART

Azken bi urte hauetan, herriko finantzak egonkortsu ondian, 2022ko buxetaren kontra bozkatu du oposizioak. Dena den, herriarren zerga tasek ez dute emendatzerik ukanen. Halere, gastuek goratze bat ukan behar lukete, nahitaez gora xifratuak izan dira, gaurko egoera internazionalak duda-muda anitz sortzen dituelakoan. Diru sarrerak aldiz apalagotik ikusiak dira, hemen ere gauzak ez baitira ongi menperatuak. Oro har, zuhurtziaren apustua eginga izan da, arrisku gehien erantzuteko gisan. Inbestimenduetan ikus daiteke kantinen handitzea, kirol zelaiko harmailen luzatzea, futbol zelaia hobekiago segurtatzea eta abar. Elkarteri buruzko dirulaguntzak mantentituak dira 83.000 eurotan. Gai parrasta bat aztertuak izan dira, buxetaren onartzeaz kanpo, eztabaida guti sortu dira.



JL BESSONART

Kultur Topaketen hamabostaldia fini

Yodi taldeak Ameriketako musika alternatiboa aurkeztu zuen eta sekulako arrakasta ukan zuen apirilaren 23ko kontzertuan. *Kultura zure atean* goiburupean egindako Kultur Topaketen hamabostaldia bukatu dute gisa honetara, Antoine Bataille kantariaren aitzinetik.



JL BESSONART

Belaunaldien arteko krakada

30 bat lagun bildu ziren Xabatenen apirilaren 20an. Haur Herriko kontseilariak, adineko jendeak eta herriko kontseilari batzuek egurrezko jokoak estreinatu zituzten, xokolata esne on baten inguruan. Zirikatatz taldeko ttikiek ikusgarria eman zuten arratsalde apalean.



Txapelketako lehen partida Arraiozko plazan jokatu zuten eta azkena Doneztebeko Bear Zanan jokatu dute. ARTXIBOKOA

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 42. edizioa abiatu da

Hamar talde lehia hasi dira abuztuaren 6an Doneztebeko Bear Zana plazan jokatu den finalerako txartelaren bila

TTIPI-TTAPA

Laxoa Elkarateak antolatutako Baztan-Errekako Laxoa Txapelketako 42. edizioa abiatu da dagoeneko. Berez, apirilaren 22-24ko asteburuan jokatu zituzten lehen bi jardunaldiak, baina Pazko Astelehena aprobetxatuz, lehen partida jokatu zuten Arraiozko plazan. Arraioz Zubiondoak 7-9 galdu zuen Irurita Olariren kontra. Denera hamar talde ari dira abuztuaren 6an Donezteben jokatu den finalerako txartelaren bila eta aurten Mariezkurrena eraikuntza enpresaren babesa izanen duela bereziki azpimarratu nahi izan du Laxoa Elkarateak.

Hamar talde horietatik lau Doneztebekoak dira, hiru Iruritakoak, bi Arraiozkoak eta Oizko bat. Hamar taldeak bi multzotan banatu dituzte lehen fase honetan.

A multzoan **Arraioz Sagar-dia** (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Jon Gamio eta Miguel Maritorena), **Doneztebe Apeztegia** (Jon Apeztegia, Ramon-txo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba Juanena), **Doneztebe Titi** (David Mitxeo, Eloi Garcia, Erik Garcia eta Imanol de Rueda), **Irurita Migelene** (Xabi Barberena, Gorka Urtasun, Jagoba Ramos eta Egoitz Prim) eta **Oiz** (Ioritz Zelaieta, Iker Bereau, Laurendi Zelaieta eta Ugutz Zelaieta) ari dira.

B multzoan, berriz, **Arraioz Zubiondo** (Josu Etxandi,

Aitor Zubigarai, Urki Etxandi eta Aritz Alunda), **Doneztebe Ameztia** (Josu Juanena, Julen Etxebeste, Iñaki Maylin eta Xabier Ibarrola), **Doneztebe The Moment** (Koldo Legarra, Javier Bertiz, Paskual Bertiz eta Julen San Miguel), **Irurita Arkupe** (Jon Sagaseta, Beñat Mariezkurrena, Hegoi Iturregi eta Xuban Iturregi) eta **Irurita Olari** (Iñigo Dendarrieta, Iñaki Azpiroz, Mikel Sagaseta eta Oinatz Jauntsaras) ari dira.

Final laurdenak eta finalerdiak uztailaren, finala abuztuaren 6an Doneztebeko Bear Zanan

Lehen fasean, multzo bakoitzeko lau lehenbizikoak sailkatuko dira uztailaren 2-3an eta uztailaren 10-11n jokatu dituzten final laurdenetarako. Bi multzotako taldeak gurutzatuko dira sailkapenaren arabera, bateko lehenbizikoak bertzeko laugarrenen kontra eta bigarrenak hirugarrenen kontra.

Final laurdenetako irabazleek finalerdiak uztailaren 17-18 eta 24-25eko asteburuetan jokatu dituzte eta final handia abuztuaren 6an Doneztebeko Bear Zana plaza historiakoan.

Jose txo Ezkurra 31. Memorialaren finalak Donezteben larunbatean

TTIPI-TTAPA

Jose txo Ezkurra zenaren omenez Doneztebeko Erreka elkarateak antolatutako 31. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte maiatzaren 7an, larunbat goizean Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Zazpi kategorietan ari dira lehia pilotariak eta zazpi final izanen dira.

Benjamin mailan: Erik Igoa (Bortziriak) – Aitor Sarasa (Berriozar)

Alebin mailan: Mattin Leiza (Erreka) – Sergio Santesteban (Esteribar)

Infantil mailan, mutikoak: Igor Nazabal (Oberena) – Iñigo Alberdi (Ataun)

Infantil mailan, neskak: Goui-ri Zabaleta (Aurrera) – Aizane Ibarrola (Uhartea)

Kadeteak: Endika Santesteban (Oberena) – Oier Ibarluzea (Lapke)

Jubenilak: Labaka (Ilunpe) – Oihan Etxeberria (Oiarpe)

Seniorrak: Iñigo Labaka (Hernani) – Enaitz Anso (Zugaralde).

Aldabe igantziarra frontballean ere txapeldun

Nafarroako *frontball* txapelketaren finalak jokatu zituzten apirilaren 13an Asiaingo Mostazulo pilotalekuan. Gizonezkoetan, Oberenako bi pilotari izan ziren aurrez aurre finalen eta Joseba Aldabe igantziarrak irabazi zion Yaniz taldekideari (10-4 eta 10-6). Emakumezkoetan, Ados pilota elkarteko bi pilotari izan ziren finalen eta berdindua goa suertatu zen, hirugarren joko ere behar izan baitzuten. Azkenean, Maite Ruiz de Larramendik irabazi zion Aldaregiari (10-4, 7-10 eta 5-0).



Txapelketako lehen jardunaldiko kirolariak Lekunberrin. UTZITAKOA

Lauko sokatira txapelketan agintzen hasi da Beti Gazte

Lesakako gizasemeak nahiz emakumeak nagusi izan ziren Lekunberrin pisu astuneko lehen jardunaldian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 4x4ko Sokatira txapelketa apirilaren 23an hasi zen Lekunberrin. Lesakako Beti Gazte eta Amaiur dira eskualdeko ordezkari, gizonezkoen, emakumezkoen zein kategorian mistoko kategorian guztietan parte hartuz. Pisu astunetako lehen jardunaldian,

255 eta 320 kilotan, Beti Gazteko emakumeak nahiz gizasemeak nagusitu ziren. Amaiur bigarren izan zen gizonezkoetan eta emakumeen bi taldeak laugarren eta bosgarren. Pisu hauetako bigarren jardunaldia **maiatzaren 7an** jokatu dute Antsoainen eta bertan banatuko dituzte txapelak.

Tartean, **apirilaren 30ean** Lesakan txapelketa mistoa jokatzekoa zuten (280 kilotan). Amaiurrek hiru talde misto ateratzekoak zituen, bina Beti Gazte eta Berriozarrek eta bana Antsoainek eta Araxesek.

Gizonezkoak eta emakumezkoak pisu arinean

Maiatzaren 14an, Betelun, emakumezkoen eta gizonezkoen pisu arinetako (235 eta 300 kilo) lehen jardunaldia eta 20 urtez beheitiko eta kadete mailako txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu dituzte. Emakumezkoen pisu arinean, Amaiur eta Beti Gazterekin batera, Araxes A, Araxes B, Berriozar eta Txantrea ariko dira. Gizonezkoen pisu arinean, berriaz, Amaiur, Berriozar eta Txantreak bina talde aterako dituzte eta Beti Gazte eta Antsoainek bana.

Maiatzaren 21ean jokatu dute hondarreko jardunaldia Berriozarren. Emakumezkoen 235 kiloko eta gizonezkoen 300 kiloko txapela bertan erabakiko da eta 20 urtez beheitikoek eta kadeteek hirugarren jardunaldia, eta ondotik, lehen bi sailkatuen arteko finalak izanen dituzte.

Ezkurra II.a, Zubiri eta Juanenea Sagardoaren Txapelketan

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 25ean hasi zen XII. Sagardoaren Txapelketan sei bikote ari dira, sei sagardotegi ordezkatzuz: Goikoetxea V.a-Barrenetxea IV.a (Oialume Zar), Urriza-**Aritz Zubiri goizuetarra** (Larre-Gain), Aldabe-Larrañaga (Bereziartua), **Josexo Ezkurra II.a doneztebarra**-Zaldua I.a (Gurutze-ta), Seguroa-Azpiroz (Petritegi) eta Ansa II.a-**Aritz Juanenea saldiastarra** (Setien). ETB1eko *Erremontari* saioan ematen dituzte partidak. Denek denen aurka jokatu dute hasierako ligaxkan eta lehenengo lau sailkatuak finalerdietara sailkatuko dira eta bi bikote kanporatuak izanen dira.

Finalerdiak ekainaren 13an jokatu dituzte eta hasierako ligaxkako lehenengo sailkatua laugarrenaren kontra ariko da eta bigarrena hirugarrenaren aurka. Garaileak ekainaren 20ko finalean elkartuko dira txapela erabakitzeko.



UTZITAKOA

Villoria eta Meoki Nafarroako txapeldun

Apirilaren 10ean Zarrakaztelun jokatu dute Eduardo Escobarren omenezko bigarren txirindularitza proban Nafarroako master txapelketa ere erabaki zen. Nafarroako txapeldun suertatu ziren Iñaki Villoria iruritarra M50 kategorian eta Elizondoko Francisco Javier Meoki M60 kategorian.



UTZITAKOA

Iñaki Gonzalez garaile Xakobeo Irekian

II. Xakobeo Disc Golf Irekia jokatu zen Santiago De Compostelan apirilaren 15etik 17ra, Espainiako II. Koparako baliagarria zen bigarren txapelketa. Baxi Basajauna taldeko Iñaki González Olaizola (ezkerretik hasita bigarrena) Galiziako Master 50 kategorian lehen postuan sailkatu zen.

MAIATZAK 5 - 19

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

DONEZTEBE Udaberriko feria

Eskulangileen azoka, ahari lehiaketa, kalejira, haurrentzako txokolatada eta jokoak...
Maiatzaren 6an Merkatuko plazan.

ERAKUSKETAK

BERA

Ramon Zabalegiren arte erakusketa

Labiaga ikastolako areto nagusian, apirilaren 23tik ekainaren 5era, larunbat eta igandetan 16:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO

Nafarroako Ostalaritzaren Historia 25 emakumek kontatua

Arizkunenean, apirilaren 25etik ekainaren 26ra, astelehenetik ortziralerara 18:00etatik 21:00etara.

J. L. Torralbaren margo erakusketa

Arizkunenean, maiatzaren 6tik 22ra, astelehenetik ortziralerara 18:00etatik 21:00etara, asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

MUSIKA

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, maiatzaren 8an, 12:30ean.

LESAKA

Abesbatza topaketa

Harriondoan, maiatzaren 14an, 20:00etan.

ELBETE

Baztan Kantuz

Maiatzaren 15ean, 12:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, maiatzaren 7an eta 14an, 10:00etatik 14:00etara.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, maiatzaren 14an, 10:30etik 13:30era.

ERRATZU

Baztango Artisauak

Plazan, maiatzaren 15ean.

SOLASALDIAK

BERA

'Hamazazpigarrenean aidanez' liburuaren aurkezpen musikatua eta ilustratua

Beralandetan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

'Kontrabandoa, Bidasoa lekuko' solasaldia

Rosa Arburuarekin.
Beralandetan, maiatzaren 13an, 19:00etan.

'Hau ez da euskal musika' solasaldia

Katakun, maiatzaren 15ean 18:00etan.

LEITZA

Literatur solasaldia

Garazi Albizuarekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 12an, 19:00etan.

'Nafarroako elikadura burujabetzaz, diagnosiaz eta etorkizunaz' solasaldia

Herri Aretoan, maiatzaren 19an, 19:00etan.

Energia Berriztagarrien Komunitatearen aurkezpena

Herri Aretoan, maiatzaren 6an, 19:00etan.

LESAKA

'Los últimos románticos' solasaldia

Txani Rodriguezekin.
Liburutegian, maiatzaren 13an, 17:30ean.

ZINEMA

LEITZA

Zinegoak jaialdiko film laburrak

Herri Aretoan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

Zinema

Herri Aretoan, maiatzaren 14an eta 15ean. 16:30ean 'Orkestra estralurtarra' eta 19:00etan 'Coda'.

BERA

'Aita Mari' dokumentala eta solasaldia

Kultur etxean, maiatzaren 6an, 19:00etan. Borondatezko sarrera.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Eresia. Lurra arin bekizu, ama' antzerkia

Harriondoan, maiatzaren 8an 19:30ean. Sarrerak 5 eurotan lesaka.eus-en eta kultur etxean.

LEITZA

'Trapu zikinak' antzerkia

Herri Aretoan, maiatzaren 8an, 19:00etan.

NIRE AUKERA

«Mundu globalizatu honetan lan ttikiek ez dute leku aunitzik»

ALBARO SOULE GARCIA ARIZKUNGO GAZTEA



30 urteko gazte arizkundarra da Albaro Soule Garcia. Ez da geldirik egoten denetakoa, eta hainbat zaletasun ditu; kayaken ibiltzea, mendia, abenturak, bideoak, musika, kontzertuak... Gainera, Cesareo Soule aitaren pausoak segituz, hargintza lanetan aritzen da eta denbora librean bideoak egitea gustuko du.

Hasmenta hargintzan
«Ttikitatik» naturaltasunez bizi izan du hargintza Soulek, etxean ikusi duena baita; «oroitzen naiz ttikia nintzelarik aitak harrietan hainbat gauza marrazten zizkidala nik zizelkatzeko; lauburuak, etxeak... Atentzioa eman zidan eta gustua hartu nion».

Urteak pasatuta, etxeko negozioarekin segitzeko

erabakia hartu zuen; «ez zen erraza izan, bertze ikasketa batzuk nituen eta hortan lanean ari nintzen. Baina ez naiz damutu, arras gustura nago lan honetan».

Ogibide zaila
«Gaur egun harritik bizitzea arras zaila da». Hala ere, «zortea» dutela aitortu du Soulek, «kanposantuko afe-retan ere mugitzen garelako; hilarriak, panteoiak, zaharberritze lanak... egiten ditugu». Harriak «aunitz» eskatzen du; «denbora eta pazientzia gehienbat».

Hargintzatik gehien gus-tatzen zaiona «harriak trans-mititzen didan barne bakea» da, baina ez da beti ona; «bakea bai baina lan tekni-koetan urduritasun edo estres puntu hori ez da goxoa izaten».

«TTIKITATIK NATURALTASUNEZ BIZI IZAN DUT HARGINTZA»

«BIDEOAK OROITZAPEN GISA EGITEN DITUT, NIRETAKO»

Hargintzaren etorkizuna «gero eta zailagoa» ikusten du Soulek; «gaur egungo jendeak ez du baloratzen lan bakoitza egiteko gibeletik zenbat ordu sartu behar diren. Tristea da baina azken urte hauetan ikusi duguna da. Mundu globalizatu hone-tan, lan ttiki hauek ez dute leku aunitzik. Hala ere, aitzinerat egiten saiatzen segi-tuko dugu».

Ikus-entzunezkoen sortzaile

Hargintzaz gain, bideogintzak «betitik erakarri nau». Gaz-teagoa zelarik «gauzak gra-batzeko eta editatzeko ohi-tura» hartu zuen, «niretako gehienbat, oroitzapen beza-la». Bere kabuz ikasi du dena, eta «benetan hunkitzen nauten esperientziak» gra-batzen ditu; «abenturaren bat, bidaiaren bat...».

Duela urte batzuk, gaine-ra, drone bat oparitu zioten. «Poliki-poliki» erabiltzen ikasten hasi zen, eta orain Baztango hainbat txoko bertzelako ikuspuntu batetik erakusten ditu. «Esperientzia eta baliabide ederra da zeru-tik irudiak hartzeko eta, dena bezala, orduak eta orduak sartzen ikasten da».

Azken urteetan lan profe-sionalak egiteko aukera izan du; «bideoklipak, iragarkiak, argazkiak... baina egia erran bideoak niretako egiten ditut, artxiboan izateko. Aunitz disfrutatzen dut bideoak egiten eta editatzen».

Bere bideoak Youtubeko Soule Produkzioak kanalean partekatzen ditu; «platafor-ma interesgarria iruditzen zait lanak plazaratzeko».

Etorkizunera begira
Etorkizunera begira, «etxeko lanarekin segitzea eta bizitzaz eta naturaz gozatzea» da Albaro Souleren asmoa.

IKASTAROAK

ARANTZA
Sendabelarrrren ikastaroa

Laura Gurbindorekin.
Plazan, maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, 16:00etatik 20:00etara.

ZUBIETA
Helduentzako eskulan tailerra

Iciar Mikelperizenarekin
Eskolan, maiatzaren 7an, 14an, 21ean eta ekainaren 4an, 10:30etik 12:30era.

JARDUNALDIAK

DONEZTEBE
Udaberriko feria

Merkatuko plazan, maiatzaren 6an.

GARTZAIN
Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Maiatzaren 7an eta 8an.

SUNBILLA
Asteburu kulturala

Maiatzaren 13an, 14an eta 15ean.

IGANTZI
Baratzondo elkartearen opil jatea

Maiatzaren 14an. Izen-ematea maiatzaren 11 arte.

KIROLAK

GOIZUETA
Aranolara mendi irteera

Plazatik abiatuta, maiatzaren 14an, 08:30ean.

LESAKA
VII. martxa zikloturista
Salvador Yanci

Maiatzaren 15ean.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

ELIZONDO. Pisua salgai, erdigu-nean, arkitektura tradizionalako etxean, Baztan ibaira eta Txokoto auzora begira. 3 logela bikoitz. Egongela- jangela zabala, begira-tokiarekin. 2 bainugela, bat bainuontziarekin eta bestea dutzarekin. Berokuntza eta ur beroa gas naturalarekin. Iaz pintatua eta berniz-tua. ☎658 75 81 73.

EROSI

Etxea, baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke. Berdin dio zein egoe-ratan dagoen, baita zein lekutan dagoen ere. ☎693 69 49 76 (Jose-mari).

ERRENTAN EMATEKO

IGANTZIKO BENTETAN etxea erren-tan emateko. Bi gela, terraza eta terrenoa. Denboraldi luzerako. ☎695 51 07 54.



ALMUÑECAR. Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo biren-tzako apartamentua errentan emateko du, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zora-garriak dituen terrazarekin, aire gi-rotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostadietan libre. ☎658 94 37 02.

AMAIURko ostatua eta 40 oheko aterpearen kudeaketa urte baterako errentan emateko deialdia. Eskaerak maiatzaren 8ra arte aurkez daitezke. Helburua ekainaren 1ean lanean hasteko prest izatea. Xehetasunen gehiagorako deitu edo idatzi. ☎667 63 36 56 edo info@amaiur.eus.

IRUÑEA. Iturruma auzoan lau loge-lako pisua errentan emateko. ☎616 19 70 88.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ERRENTAN HARTZEKO

IRUÑEA. Arrosadia auzoan edo uni-bertsitate inguruan, lau neskek pisua errentan hartu nahi dute datorren ikasturtetik aurrera. ☎617 80 88 48.

DONEZTEBE, ELGORRIAGA, LE-GASA, DONAMARIA edo SUNBI-LLAn 32 urteko emakumezkoa, 9 urteko semearekin, etxebizitza edo errentan hartzeko pisu bila. 2-3 lo-gelakoa, argitasun onarekin eta ter-rrazarekin. Epe luzerako. Astelehe-netik ortziralerara deitu 16:00etatik aitzinera eta asteburuetan egun osoan. ☎616 47 42 75.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTU

LESAKAN edo **BERA**n furgoneta bat gordetzeko garajea edo marra erren-tan hartu nahi dute. Gutxieneko al-tura 2,03m. ☎647 74 15 44.

LANA

ESKAINTZAK

LESAKA. Linddurrenborda sagar-dotegian asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎948 63 72 12.

ARANTZAko Aterpean goizetan eta astean bortz egunez garbiketak egiteko pertsona bat behar dute. ☎948 63 41 79 / 647 75 91 40.

BERA. Beola Etxea Bentan astebu-ruetan egun erdiz aritzeko zerbitza-ria behar dute, frantsesez dakiena. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera. ☎948 63 07 09.

URDAZUBI. Irigoienea landa hote-lean garbiketa lanak egiteko langi-le bila ari dira, 10:00etatik 15:00eta-ra, astean sei egunez. Bidali curri-culuma reservas@irigoienea.com

helbidera edo deitu. ☎948 59 92 67.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute asteburuetan eta jai egunetan lanaldi erdian ari-tzeko, eguerdiko zerbitzuan. Fran-tses pixka bat dakiena. Bidali cu-riculumak benta.gorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

BERA. Pertsona bat behar dute adineko gizonezko bat zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldean aritzeko. ☎607 56 60 22.

ORONÓZ-MUGAIRI. Urgain Hote-lean garbiketa lanetan aritzeko langilea behar dute. ☎637 71 53 84.

Biok Taldearen Luzaideko dendan **txarkuterian lan** egiteko langile bila. Pertsona atsegina, dinamiko, arduraduna eta txukuna. Frantsesa dakiena eta gidatzeko baimena izatea kontuan hartuko da. Bereha-la hasteko, egun osoko lanaldi egonkorra eta bazkaria bar-ne. rrhh@ventabiok.com. ☎683 43 88 52.

ZURAUDE. Elikagaien enpresa ba-tean merkatuetan aritzeko saltzai-lea-eskaeren prestatzailea-bana-tzailea behar dute. Frantsesez da-kiena. ☎(00 33) 672 04 96 83.

ESKARIAK

Gizonezko bat lan bila. Zerbitzari lanetan, sukaldari laguntzaile, erai-kuntzan, adinekoak zaintzen, ba-serriko lanetan... ariko litzateke. ☎631 98 83 99.

Erizain titulua eta dokumentazioa behar bezala duen neska etxeko lanetan eta adinekoak etxetan edo zahar etxetan zaintzen ariko litzate-ke. Esperientziaduna eta errefe-rentziak. ☎631 12 10 31.

LEITZALDEAN neska euskalduna haurrak zaintzen aritzeko prest, uda aldean. ☎640 39 91 91 / 617 80 88 48.

Erizaintza Zainketan Laguntzaile Teknikariaren (E.Z.L.T. edo T.C.A.E.) titulua duen neska batek zaintzaile lanak egiten litzuzke goizetan. ☎624 41 48 14.

Neska batek interna lan egiten luke, etxeko lanetan, haurrak edota adi-nekoak zaintzen, garbiketan... ☎652 99 28 27 / 603 43 41 11.

ANIMALIAK

SALGAI

OIZ. 2 urteko ahari mutur gorria, adarrik gabea, eta 8-10 ardi salgai. ☎606 01 93 37.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,88
- 1.koa 4,76
- 2.koa 4,64

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,99
- 1.koa 4,85
- 2.koa 4,74

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 67 €

Zerri gizona 1,590 €

Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

Hiru **ahari** mutur hori eta gazteak salgai. ☎697 44 05 90.

OPARITZEKO

LEITZA. Txakurkumeak oparitzeko. Border Collie arrazakoak. Hilabete-koak. Oso politak. ☎636 02 23 11.

ERRATZU. Border Collie eta Mastin arrazen nahasketa duten zakurkumeak oparitzeko. ☎629 00 57 64.

DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramaneen dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.

Etxerako egur loteak egiten dira, etxera eramateko aukerarekin. Bertze lanak ere egiten dira. Belai itxiturak, lorategien apainketa edo mozketak, mantentze lanak... ☎618 20 23 95.



Baserriko ilar gorria salgai. ☎671 75 90 52.

EROSI

Haritz egurra erosi nahi dute, kamioi trailer bat eta enborrak oso-rik. Prezio onean. ☎605 24 30 57.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak
TOYOTA SUZUKI

TOYOTA RAV4
136CV • 5 ate

SUZUKI GRAND VITARA
1.9 DDIS 130CV • 5 ate

www.mendaurmotor.es

URTEBETETZEAK



Etxalarko **Nikole Sarasua Canok** 4 urte bete ditu apirilaren 18an. Muxu haundi bat hire egunean, laztan eder! Ulises, Sabina, ama eta aitaren partez.



Joseba Petrirenak maiatzaren 2an 39 urte bete ditu. Zorionak eta espero dugu eguna ongi pasatu izana. Attaren eta Sunbillako familiaren partez.



Leire eta Itziar Mitxelena Gamiok urteak bete dituzte apirilaren 16an eta 29an. Bertze hamabi gosariren alde, topa! Aunitz urtez!



Donezteben aitatxi **Liboriok** maiatzaren 18an 67 urte beteko ditu eta aldi berean **Amaru Ohian** bilobak maiatzaren 16an 3 urte. Zorionak pareja, artistak zarete. Segi beti bezain alai eta bixkor!



Goizuetako **Ilargi Indakoetxea Mendizurik** 8 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak ireber, ama, aita eta Goizueta, Hernani eta Usurbilgo familia guztiaren partetik. Maite zaitugu, *kurrux!!!*



12 urte bete ditu **Etxahun Olaetxea Zatok**. Aunitz urtez, **Etxahun**. Zorionak Beko Errotako familia guztiaren partez, bereziki amatxi Mikeliren partez. Ongi pasa.



Aiert eta Elorri Arotzena Portu lesakarrek 11 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Aunitz urtez eta 11 muxu haundi familia osoaren partez.

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN

Diseinua prestatzetik inprimatzeraino, prozesu osoa



KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikatzaia

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tti-ttapa.com
www.kulturkari.com

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak **TTIPI-TTAPAN!**

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; **TTIPI-TTAPAREN** **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 **LESAKA** edo **Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo [ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA](http://erran.eus/tpv/ORDAINKETA) webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.



Aunitz urtez **Ainhoa!** Berako gure lankide gazteak maiatzaren 13an urteak beteko ditu. Ongi pasa zure eguna!

HILBERRIAK

- **Xabier Nabarte Petrikorena**, Aranokoa, apirilaren 23an.
- **Maria Dolores Iribas Arbizu**, Berakoa, apirilaren 14an, 84 urte zituela.
- **Josefa Madariaga Elizondo**, Lesakakoa, apirilaren 15ean, 95 urte zituela.
- **Jesus Irigoien Jorajuria**, Sunbillakoa, apirilaren 18an, 88 urte zituela.
- **Julia Larralde Ordoki**, Lesakakoa, apirilaren 19an, 94 urte zituela.
- **Agustin Sanzberro Alberdi**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 19an, 86 urte zituela.
- **Lucia Otxandorena Petrikorena**, Iruritakoa, apirilaren 21ean, 101 urte zituela.
- **Rosario Aranburu Elduaien**, Leitzakoa, apirilaren 22an, 96 urte zituela.
- **Mari Sagastibeltza Zestau**, Leitzakoa, apirilaren 24an.
- **Ramon Lizarraga Iraola**, Leitzakoa, apirilaren 25ean, 76 urte zituela.



OROIGARRIAK



- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
 Diseinu grafiko | Publizitatea
 Info +:
 Tel: 948 63 54 58
 kulturkari@ttipi.eus
 www.kulturkari.com



IZARRA

HENAI, ZURE OROIGARRIAK
AUKERATU

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- ARANTZA

• BERA

• IGANTZI

• DONEZTEBE

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

www.tanatoriosirache.es



**BAZTAN
BIDASOA**

Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79

BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian

MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**

info@funerariabaztanbidaso.com


Betiko taldea zu laguntzeka

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
 Ttipi-Ttapa aldirikari + ERRAN.EUSen: 100 €
 Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.


► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

HITZ GEZIDUNAK



◆ Ilustratzaile zugarramurdiarra

GOITIBEHRA



Goiti eta beheiti letra bat gubxiago edo
gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Gure lurraldeko udalerria, Baztanaldean. [2] Sokaz eginiko eskailera. [3] Nafarroako udalerria, Sakanan. [4] Pertsoenez mintzatuz, faltsua. [5] Enborraren mamia. [6] Oinarritzko edaria. [7] Zerbait nola egin behar den adierazten duen argibide. [8] Ale, bihi. [9] Landare bati gara egin. [10] Etsaia edo aurkaria gainditu, bentzutu. [11] Mamitu, gauzatu.

ERANTZUNAK




PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.

Eguzkia
Lurra
Ilargia
Meteoritoa
Planeta
Izarra



Ilustrazioak: Garbine Ubeda (Aiumri)



SUDOKUAK



Ondoko sudoku hauek gainera irudiko laguntxoekin ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta laukoan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



HARA!

Gaixoak pinguinoak! Laster beren bizimodua egokitu beharko dute, Lurraren temperatura igotzen ari baita. Beno, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 15 dira guztira.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Keskuntako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

804 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Ana Alberro Burgete | LESAKA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Juan Telletxea Albistur | LEITZA
Martiko - Lote bat
Epifanio Telletxea Iguzkiagirre | DONEZTEBE
Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat
Ana Mariezkurrena Murgia | SARRIGUREN
BKZ abentura - Sarrera bat
Sandra Valverde | BEINTZA-LABAIEN
Kimetz - Saski bat
Rafaela Etxebeste Zozai | IIGANTZI
Wow Park - Sarrera bat
M^oKarmen Etxeberria | ZUGARRAMURDI
Erein - Bi liburur
Julia Agirre Irigoien | ZIGA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA
www.salttingcenters.com



Bi sarrera

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak

WOW PARK
www.wowpark.fr



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



Sua eta hautsak
Nirliit

txalaparta
www.txalaparta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.elkar.eus



www.okilletailerra.espot.blogspot.com.es